



Arrigorriagako Enplegu Plana

2013-2015

2013ko martxoaren 20a

Aurkibidea

| | |
|--------------------------------------|-----------|
| I. Hitzaurrea | 3 |
| II. Metodologia | 4 |
| III. Diagnostikoa | 11 |
| IV. Estrategia | 72 |
| V. Jarduketa Plana | 77 |
| VI. Ebaluazioa eta Jarraipena | 96 |
| VII. Eranskinak | 98 |



Hitzaurrea

Gobernuaren laburpena


Arrigorriagarako 2013-2015 aldirako zehaztutako Tokiko Enplegu Plana eraentzen duten helburuak udalerriko lagunen laneratze-maila, enplegarritasuna eta gaikuntza hobetzea, talde zaurgarrienak bereziki nabarmenduta, eta enpresen lehiakortasuna eta udalerriko sustapen ekonomikoa sustatzea dira.

Enplegu Plana prestatzeko gauzatu den metodologiak 4 zati izan ditu. Lehenik eta behin, Partaidetza Foroa eratu eta ezarri da, udalerriko gizarte- eta ekonomia-eragileak ordezkatzeko dituen eta hurrengo 3 zatietan agertzen diren enplegu arloko orientabideak emateko eta baliozkotzeko helburua duena. Bigarren zatian diagnostiko bat egin da, udalerriko enpresa-ehunaren, gaitasunen eta azpiegituren analisi sozioekonomikoa biltzen duena eta AMIA analisisa ekarri duena. Arrigorriagako ahuleziak, mehatxuak, indarrak eta aukerak zehazten dituen analisi horretatik aurrera, hirugarren zatian Planak jarraitu beharreko estrategia diseinatu da, hau da, Orientabide Estrategikoko Guneak eta lortu beharreko Helburu Estrategikoak. Laugarren zatiak Jarduketa Plana biltzen du, aurreko zatian zehaztutako Helburu Estrategikoak lortzen lagunduko duena.

Honako hauek osatzen dute Partaidetza Foroa: Arrigorriagako Udaleko ordezkari politikoak, Udaleko enplegu teknikariak, sindikatuak, enpresa eragileak, Merkatarien Elkarteak eta Eraikuntzako LHko zentroa. Parte-hartzaile bakoitzak bere kabuz garatu behar izan dituen informazioa aztertzeko eta gogoeta egiteko jardueraz gain, Partaidetza Foroa lau alditan bildu da: lehenengoan diagnostikoa aurkezteko; bigarrenengan Orientabide Estrategikoko Guneak eta lortu beharreko Helburu Estrategikoak proposatzeko; hirugarrenean parte-hartzaile bakoitzak Helburu Estrategikoak lortzeko jarduketak proposatzeko saio dinamikoak egiteko; eta laugarrenean garatu beharreko jarduketan azken proposamena aurkezteko. Zati bakoitza aurrez aurreko saio bakoitzean aurkeztutako proposamenak baliozkotuta eta lehenetsita finkatu da.

Metodologia


Metodologia



01 zatia. Partaidetza Foroa

01 zatia. Partaidetza Foroa

Partaidetza Foroaren eraketa udalerriko enpleguaren eta garapen ekonomikoaren arloetako eragile interesgarrien tipologiaren identifikaziotik aurrera abiatu da. Hamahiru pertsonak osatu dute Foroa:



A. Arrigorriagako Udaleko alkatea (Asier Albizua)
Enplegu zinegotzia (Agurtzane Ibarretxe)
Enplegu teknikaria (Elena Díaz de Corcuera)

B. Bildu (Jagoba Lazkano)
IU (Joseba Méndez)
PSOE (Teresa Barahona)
PP (Jesús Sevilla)

C. Financiera y Minera (FYM) (Ángel Jiménez)

D. CCOO (Mikel Vázquez)
LAB (D. Lizarralde)

E. Arrigorriagako Merkatarien Elkartea (Adecka) (JA. Cebrecos)

F. Eraikuntzako LHko institutua (Isaac Fernández)

01 zatia. Partaidetza Foroa

Partaidetza Foroaren eginkizunak

“Arrigorriagako enpleguaren eta garapen ekonomikoaren arloetako orientabide estrategikoak zehazten eta baliozkotzen laguntzea”

Foroaren parte-hartzeak 4 lansaio ekarri ditu, baita parte-hartzaile bakoitzak bere kabuz garatu behar izan dituen informazioa aztertzeko eta gogoeta egiteko jarduerak ere:

Aurrez aurreko 1. saioa Diagnostiko sozioekonomikoa aurkeztea

Diagnostikoaren analisia Diagnostikotik ondorioztatutako emaitzen banakako analisia

Aurrez aurreko 2. saioa Orientabide Guneei eta Helburu Estrategikoei buruzko proposamena aurkeztea

Baliozkotzea eta lehenestea Proposatutako helburuak banaka baliozkotzea eta 5 helburu lehenestea

Aurrez aurreko 3. saioa Parte-hartzaile bakoitzak lehenetsi diren 5 helburuak lortzeko jarduketak proposatzeko saio dinamikoa

Aurrez aurreko 4. saioa Azken jarduketak proposatzea, Foroaren ekarpenak kontuan hartuta

Baliozkotzea eta lehenestea Proposatu diren 5 jarduketa baliozkotzea

02 zatia. Diagnostikoa

Diagnostikoa

Diagnostikoaren zatiak funtsezko aldagaien eta parametroen informazio kuantitatiboa zein kualitatiboa bildu, ustiatu eta aztertzea ekarri du. Beharrezko informazioa 3 analisi multzo handiren arabera egituratu da:


| | |
|------------------------------------|--|
| Datu sozioekonomikoak | Udalerriko analisi demografikoa eta gizartearena Lan-merkatuaren analisia |
| Enpresa-ehuna | Estatistika informazioa Enpresetarako galdera-sorta |
| Gaitasunak eta azpiegiturak | Tokiko enpleguaren arloko gaitasunak eta azpiegiturak aztertzea |

Aipatutako aldagaiak aztertu eta gero, ondorioak atera, eta udalerriko enpleguaren eta garapen ekonomikoaren arloetako AMIA analisia (ahuleziak, mehatxuak, indarrak eta aukerak) diseinatu da.

03 zatia. Estrategiaren diseinua

Gogoeta prozesua

Udalerriko enpleguaren arloko estrategia AMIA analitik ateratako ondorioetatik aurrera ezarri da, eta ahuleziak gutxitzeko, indarrei eusteko, aukerak aprobetxatzeko eta mehatxuak aukera bihurtarazteko helburua du. Jarraian, gauzatu den gogoeta prozesua agertu da:



Estrategiaren abiapuntu gisa, epe luzerako helburuak zehazteari ekin zaio, horri Helburu Orokorra deitu diogula. Gogoetaren gainerako aldeak bideratu behar dituen azken helburua da, eta Enplegu Planak epe luzera lortu beharko lukeena ordezkatzen du.

03 zatia. Estrategiaren diseinua

Orientabide Estrategikoko Guneak

Helburu Orokorretik aurrera, estrategiak biltzen dituen Orientabide Guneak zehaztu dira. Orientabide Estrategikoko Gune horiek ahaleginak eragin eremu zehatzetan biltzea ahalbidetzen dute, eta ondoren Helburu Estrategikoak biltzen laguntzen dute, ahaleginak sakabanatzea eragotzita. Zehaztu diren Orientabide Estrategikoko Guneak honako hauek dira:

- A. Enplegua eta Prestakuntza
- B. Ehun ekonomikoa
- C. Gizartea
- D. Azpiegiturak eta Komunikazioak

Orientabide Estrategikoko Gune horietatik aurrera eta AMIA analisiaren ondorioak kontuan hartuta, Helburu Estrategikoak ezarri dira. Horiek Partaidetza Foroan aurkeztu eta baliozkotu ondoren, Foroan Helburu Estrategiko batzuk lehenetsi beharra zehaztu da, ahaleginak eragileen mugekin bat datorren helburu lorgarrian pilatzeke asmoz. Foroko kide bakoitzak baloratuta eta parte-hartzaile bakoitzak izan dezakeen pisuari haztapena esleituta, 2013-2015 aldirako lehentasunezko 5 helburuak atera dira.

04 zatia. Jarduketa Plana

Orientabide Estrategikoko Guneak

Amaitzeko, Helburu Estrategikoak lortzen lagunduko duten jarduketak zehaztu dira. Gogoeta prozesua helburuetatik eurretatik abiatzen da. Hala ere, ekintzak zehazteko zatian hainbat helbururen zeharkako ekintzak agertu dira, hau da, helburu bat baino gehiago lortzen lagunduko luketenak.



Partaidetza Foroko kideek proposatu, eztabaidatu, baliozkotu eta lehenetsi dituzte ekintzok, eta horien ondorioz lehenetasunezko Jarduketa Plana sortu da.

Diagnostikoa

Enplegu Planaren diagnostikoaren diseinua

Diagnostiko honek enpleguari eta garapen ekonomikoari dagokienez Arrigorriagan dagoen errealitatea ezagutzeko funtsezkotzat jo diren aldagaien emaitzak ditu.

Diagnostikoa lau analisi ikuspuntutatik egituratu da:

- A. Bilakaera demografikoa eta soziala
- B. Lan-merkatuaren ezaugarriak eta bilakaera
- C. Enpresa-ehunaren egitura eta enpresek lehiakortasunerako funtsezkoak diren zenbait alderdiri buruz duten pertzepzioa
- D. Udalerriko tokiko enpleguaren eta garapen ekonomikoaren arloetako gaitasunak eta azpiegiturak

Diagnostikoak atal horietako bakoitza prozesuaren 3 zatitan banatzen du. Aztertu beharreko aldagaien zehaztapenetik aurrera, datu xehatuak aurkeztu dira, iruzkin batekin batera, eta alde garrantzitsuenak agertzen dituen laburpena egin da amaieran.

Ondorioak atalean diagnostiko osoaren gogoeta nabarmenenak aurkeztu dira AMIA analisi batean.

Arrigorriagako analisi demografikoa eta gizartearena

Xede aldagaiak:

Udalerriaren analisi demografikoak honako aldagai eta parametro hauen bilakaeraren azterlana barne hartu du.

Aztertutako aldagaiak:

Biztanleria osoa (1981–2011. Bost urteko saila)

Hazkunde begetatiboa (2000–2010. Urteko saila)

Migrazio saldoa (2000–2010. Urteko saila)


Biztanleria, sexuaren, udalerrien eta adinaren arabera (2011. Bost urteko taldeen arabera).

Eskualde mailako heziketa maila (1986–2006. Bost urteko saila)

Arrigorriagako analisi demografikoa eta gizartearena

D1. Biztanleriaren bilakaera. 1981 - 2011

Arrigorriagako biztanleriaren bilakaera, 1981-2011




Aztertutako aldi osoan, udalerriak biztanleriaren hazkunde txikia izan du, 1996–2006 aldian nabarmenagoa izan dena.

Hazkunde hori azaltzen duten arrazoen artean, azpimarratzekoa da Arrigorriagatik hurbil dauden udalerrietako gazteak bertaratzea, kokapenak, irisgarritasunak, etxebizitza eskuratzeko erraztasunek eta abarrek erakarri baitituzte.

Arrigorriagako analisi demografikoa eta gizartearena

D2. Hazkunde begetatiboa (2000–2010)

Arrigorriagako hazkunde begetatiboaren bilakaera, 2000-2010



Arrigorriagak jaiotzen hazkunde handia izan du, udalerriko heriotzen aldean, 2002–2003 aldian, 2004an eta 2005ean.

2006an, berriz, hazkunde begetatiboak behera egin zuen, 2004ko mailetan kokatuta, eta murrizten jarraitu zuen 2009ra arte.


2010ean berriro ere jaiotzen gorakada txikia egon zen, heriotzen aldean.

Hazkunde begetatiboa: jaiotzen eta heriotzen arteko aldea.

Arrigorriagako analisi demografikoa eta gizartearena

D3. Migrazio saldoa (2000–2010)

Arrigorriagako migrazio saldoa, 2000-2010



Arrigorriagak sekulako aldaketa izan zuen migrazio saldoan 2000tik 2001era bitartean: 2000n 64 izan zen, eta 2001ean, berriz, 440. Urte horretatik aurrera eta 2006ra arte, etorreren kopuruak gehitzen jarraitu zuen, udalerrian 1.422 pertsonako migrazio saldo positiboa zenbatu baita. Datu horrek neurri handian azaltzen du D1 irudian agertzen den biztanleriaren hazkundera.


Dena den, etorreren gorakada gorabehera, migrazio saldoaren joera beheranzkoa izan da 2003tik aurrera; 2007tik aurrera saldoa 0 inguruan kokatu da.

Migrazio saldoa: migrazioagatiko sarreren eta migrazioagatiko irteeren arteko aldea.

Arrigorriagako analisi demografikoa eta gizartearena

D4. Migrazio saldoa eta hazkunde begetatiboarekiko erkaketa (2000–2010)

Migrazio saldoaren % eta Arrigorriagako biztanleria osoarekiko hazkunde begetatiboa, 2000-2010




Arrigorriagako migrazio saldoa eta hazkunde begetatiboa erkatuz, 2001–2003 aldiko migrazio saldoaren eta 2004tik aurrera izandako hazkunde begetatiboaren artean korrelazio positiboa dagoela antzeman da.

Ondoriozta daiteke Arrigorriagan finkatutako pertsonak etxebizitza eskuratzeko erraztasunek eta inguruneak erakarri dituzten eta udalerrian finkatu eta urte gutxitara familia osatzen hasi diren gazteak direla.

Arrigorriagako analisi demografikoa eta gizartearena

D5. Populazioaren piramidea (2011)

Arrigorriagako populazioaren piramidea (2011)



Udalerriko biztanleengan zahartzeko joera argia antzeman da.


Piramide simetrikoa da gizonen eta emakumeen populazioen artean, baita atzeranzkoa ere, jaiotza-tasak eta heriotza-tasak nahiko txikiak baitira eta, beraz, hazkunde begetatiboa murriztua baita.

Joera hori EAEko gainerako udalerrietan eta Europan agertzen dena da.

Arrigorriagako analisi demografikoa eta gizartearena

D6. Eskualdeko biztanleen heziketa maila (1986–2006)

Arratia-Nerbioiko heziketa mailaren bilakaera (%), 1986-2006



Aztertutako aldiari, Lanbide Heziketako tituluak eta erdi eta goi mailako beste ikasketak batzuk dituzten pertsonek nabarmen egin dute gora.

Nahiz eta irudiak biztanle trebatuagoak agertzeko joera argia duen, oraindik ere nagusi dira lehen mailako ikasketak bakarrik dituzten biztanleak, biztanleria osoaren % 50 inguru baitira.

Oharra: Eskualde mailako datuak baino ez daude.

Arrigorriagako analisi demografikoa eta gizartearena

Laburpena:

Ondorio gisa, analisi demografikoari eta gizartearen analisiari dagokienez, honako hau adierazi da:

Analisi demografikoaren eta gizartearen analisiaren ondorioak:

2000-2010 aldian, Arrigorriagako biztanleriak % 15,9 egin du gora, udalerriak 2001etik aurrera izan duen migrazio saldo positiboari eta, ondoren, horren ondoriozko hazkunde begetatibo txikiari esker.

Biztanleengan zahartzeko joera argia dago. 34 eta 54 urte arteko adin-tartea biztanleria osoaren % 37 zen 2011n.

15 eta 25 urte arteko gazteen kopuru txikiak eta migrazio saldoak 2007tik aurrera izandako murrizketa handiak biztanleriaren hazkundearen geldialdia iragarri dute, epe ertainera atzerakada ekar dezakeena.

Nahiz eta joera gero eta prestatuago dauden biztanleak izatea den, biztanleriaren ia % 50ek lehen mailako ikasketak baino ez dituzte.

Biztanleriaren adinen eta heziketa mailen araberako banaketa konbinatuta, ondoriozta daiteke erdi eta goi mailako ikasketak dituzten biztanleen proportzioak pixkanaka-pixkanaka gora egiten jarraituko duela, gazteen proportzioa oso txikia baita.

Lan-merkatuaren analisia

Helburuaren aldagaiak:

Udalerrriaren lan-merkatuaren analisiak honako aldagai eta parametro hauen bilakaeraren azterlana barne hartu du.

Aztertutako aldagaiak:

Sexuaren araberako jarduera-tasa (1986–2012. Bost urteko saila)

Biztanleria aktiboaren bilakaera (2007–2012. Urteko saila)

Jarduera-adarren araberako biztanleria landuna (2006)

Sektorearen araberako biztanleria landuna (2010)

Sexuaren, adinaren, jarduera-adarraren, heziketa mailaren eta lanpostuen araberako langabezia-tasa (2007–2012. Urteko saila)


Kontratu moten araberako kontratazioak (2012)

Heziketa mailaren, jarduera-adarraren eta sexuaren araberako kontratazioak (2012)

Langabeziaren analisia

M1. Enplegu eskatzaileen bilakaera (2007–2012)

Arrigorriagako langabezia-tasaren bilakaera (%), 2007-2012




Irudiak agertzen du nola handitu den etengabe langabezia-tasa Arrigorriagan krisia 2008an abiarazi zenetik, 6,5 puntu portzental hartu dituela 2008tik 2012ra bitartean.

Aurreikuspen ekonomikoen arabera, eta, irudian ikusten den bezala, badirudi epe laburrean eta ertainean langabeziak handitzen jarraituko duela Arrigorriagan.

Jardueraren analisia

M2. Arrigorriagako jarduera-tasaren bilakaera (%) (1986-2010)

Arrigorriagako jarduera-tasaren bilakaera (%), 1986-2006



Emakumeak laneratu izanak nagusiki eraginda, jarduera-tasa osoa pixkanaka-pixkanaka handitzen joan zen 2010era arte.


Gizonei dagokienez, jarduera-tasa % 55 ingurukoa izan da sail osoan.

Emakumeei dagokienez, aldiz, azken 20 urtean kopurua bikoitza baino handiagoa izan den arren, 2010ean % 44,5koa izan zen.

Jardueraren analisia

M3. Arrigorriagako biztanleria aktiboaren bilakaera (2007–2012)

Arrigorriagako biztanleria aktiboaren bilakaera, 2007-2012




2007 eta 2012 bitarteko biztanleria aktiboa aztertuta, egiaztatu da 2007 eta 2010 bitarteko aldiko gehikuntza handia 2001etik aurrera egondako migrazio saldo positiboagatik gertatu dela, horretan beste herri batzuetako gazteek bizilekua ezarri zutela udalerrian.

Aurreikusi da jarduera-tasa beheranzko joera agertuta egonkortzea, biztanleria zahartzearen eta, biztanleria osoaren aldean, gazteen proportzio txikia egotearen ondorioz.

Jardueraren analisia

M4. Arrigorriagako biztanleria osoaren, aktiboaren eta langabearen bilakaera (2007–2012)

Arrigorriagako biztanleria osoaren, biztanleria aktiboaren eta enplegu eskatzaileen bilakaera, 2007-2012



Biztanleria osoaren eta biztanleria aktiboaren arteko erlazioa proportzionala da, eta haren joera ia paraleloa da, udalerriko migrazio saldoaren eta hazkunde begetatiboaren ondorioz.


Biztanleria langabeari dagokionez, antzeman daiteke, krisia abiarazi zenetik, biztanleria osoa eta biztanleria aktiboa baino neurri handiagoan handitu dela.

Ondorioztatu da langabezia endogenoa dela, hau da, biztanleriarena berarena, eta ez dela egon Arrigorriagara migratu duten langabeek eragindako gehikuntzarik.

Lanaren analisia

M5. Sektore ekonomikoen arabera 16 urteko eta hortik gorako biztanleria landuna (2010)

Arrigorriagako, Arratia-Nerbioiko eta EAeko sektore ekonomikoen arabera 16 urteko eta hortik gorako biztanleria landuna (%), 2010



Ikus daitekeenez, Arrigorriagan, eskualde mailan eta EAEn bezala, sektore nagusiak industria eta zerbitzuen sektorea dira, eraikuntzaren sektorearen nolabaiteko agerpena dagoela.


Bereziki zerbitzuen sektorea nabarmentzen da, biztanleria landunaren ia % 70 hartzen baitu. Industriako okupazio maila eskualdekoa eta EAeko bano txikiagoa izan da; eraikuntzako okupazio maila, aldiz, bi lurralde horietako portzentajearen gainean dago.

Ohar metodologikoa: Zerbitzuen sektoreak ABLEek kontratatutako pertsonak barne hartzen ditu. Ezinezkoa da haien lanpostuak zein diren jakitea.

Lanaren analisia

M6. Jarduera-adarraren araberako biztanleria landuna (2006)

Arrigorriagako jarduera-adarraren araberako biztanleria landuna (%) , 2006



■ Industria eta Energia

■ Eraikuntza

■ Merkataritza, Garraioa, Komunikazioa eta Ostalaritza

■ Lanbide-, finantza-, higiezin- eta aseguru-jarduerak

■ HHAA, Hezkuntza eta Osasuna

■ Zerbitzuetako bestelako jarduerak

■ Nekazaritza


Zerbitzuen sektoreak langileen erdia baino gehiago hartzen dituela alde batera utzita, nabarmendu behar da Merkataritza, Garraioa, Komunikazioa eta Ostalaritza jarduera-adarrak duen proportzioa, landun guztien % 30 hartzen baititu.

Nekazaritza sektorean izan ezik, nolabaiteko oreka dago gainerako jarduera-adarretako lanpostuen banaketan.

Langabeziaren analisia

M7. Eskatzaileen tasen sexuaren eta adinaren arabera erkaketa (2007–2012)

Arrigorriagako eskatzaileen tasen sexuaren eta adinaren arabera erkaketa (%), 2007-2012



2009tik 2012ra bitartean langabezia egon diren gizonen eta emakumeen proportzioak antzekoak izan diren arren, azken urteotan gizonen langabezia emakumeena baino neurri handiagoan handitu da.


Adin-taldee dagokienez, 35 eta 55 urte bitarteko tarterako emakume langabeen proportzioak behera egin du; adin-tarte horretan gizonen proportzioak gora egin du.

Sexuaren arabera, langabeziak neurri handiagoan eragiten die 35 eta 45 urte bitarteko emakumeei, baina, gizonen dagokienez, ez dago alde handirik adin-tartean artean.

Langabeziaren analisia

M9. Enplegu eskatzaileen lanpostuaren araberako bilakaera (2007–2012)

Arrigorriagako enplegu eskatzaileen lanpostuaren araberako bilakaera (%), 2007-2012



Prestakuntzarik gabeko langileen proportzioak beheranzko joera agertzea bi modutan interpreta daiteke:


- i) Erretiroa hartzen duten pertsonak lan-merkatutik irtetean, gazteenek prestakuntza handiagoa dute.
- ii) Horrez gain, lanpostu guztietan langabezia handitzeak horietako bakoitzaren proportzioa neurri handiagoan banatzea dakar.

Eragin handiena jasotzen dutenak Zerbitzuetako langileak, prestakuntzarik gabeko langileak eta prestakuntza dutenak dira.

Langabeziaren analisia

M10. Lanpostuaren araberako enplegu eskatzaileak. Bizkaiarekiko eta EAerekiko erkaketa. (2012)

Arrigorriagako, Arratia-Nerbioiko, Bizkaiko eta EAeko lanpostuaren araberako enplegu eskatzaileak (%), 2012




Oro har, Arrigorriagako enplegu eskatzailearen profila antz handia dauka Arratia-Nerbioiko, Bizkaiko eta EAeko enplegu eskatzaileen profilarekin, langabeziaren eragin handiena jaso duten lanpostuak Zerbitzuetako langileenak, prestakuntzarik gabeko langileenak eta prestakuntza duten langileenak izan direla.

Zehatz-mehatz, bai Arrigorriagan bai Arratia-Nerbioin langabe gehiago daude makinetako langileen artean eta langile gehiago teknikarien eta zientzialarien artean.

Langabeziaren analisia

M11. Enplegu eskatzaileen jarduera-adarraren araberako bilakaera (2007–2012)

Arrigorriagako enplegu eskatzaileen jarduera-adarraren araberako bilakaera (%), 2007-2012



Nabarmena da langabeziak Eraikuntzaren sektorean izan duen gehikuntza (2007an % 10ekoa zen, eta 2012an, aldiz, % 15ekoa).

Gainerako jarduera-adarretan, langabeziak antzeko eragina izan du.


2012an langabezia gehiena Zerbitzuen sektorean zegoen, bertan langabeziaren % 58 baitzegoen. Hala ere, egia da proportzio hori jaitsi egin dela 2007ko mailetatik (% 68).

Ohar metodologikoa: 2007an eta 2008an zerbitzuetako "Bestelako jarduerak" atalak "Lanbide-, finantza-, higiezin- eta aseguru-jarduerak" ere bildu zituen, jatorri ezberdineko datu-baseak (EIN eta Lanbide) erabiltzearen ondorioz.

Kontratazioen analisia

M12. Sektore ekonomikoaren arabeko kontratazioa (2012)

**Arrigorriagako sektore ekonomikoaren arabeko
kontratazioa (%), 2012**




2012an Arrigorriagan erregistratutako kontratazioen % 69 Zerbitzuen sektorean gauzatu dira. Gainerako kontratazioak antzera banatu dira Eraikuntzaren (% 16) eta Industriaren (% 15) sektoreetan.

Hala eta guztiz ere, kontuan hartu behar da Zerbitzuen sektorearen barnean egondako kontratazioen zati handia ABLEen bidez egindako kontratuei dagokiela, eta, beraz, ezinezkoa dela zein sektoretako lanpostuak izan diren jakitea.

Kontratazioen analisia

M13. Heziketa mailaren, jarduera-adarraren eta sexuaren arabera kontratazioak (2012)

Arratia-Nerbioiko jarduera-adarren, heziketa mailaren eta sexuaren arabera kontratuak, 2012



Enpleguari lotutako jarduerak (ABLE)

Zerbitzuetako bestelako jarduerak

Lanbide-, finantza-, higiezin- eta aseguru-jarduerak

Eraikuntza

Nekazaritza

HHAA, Hezkuntza eta Osasuna

Merkataritza, Garraioa, Komunikazioa eta Ostalaritza

Industria eta Energia

1. mailako eta 2. mailako ikasketen eta LHren arabera erregistratutako kontratuak antzeko ezaugarriak dituzte sexuaren arabera. Gizonak Industria, Eraikuntza eta Merkataritzaren jardueretan kontratatu dira nagusiki, baina emakume gehiago kontratatu dira Merkataritzan, HHAetan eta Zerbitzuetako bestelako jardueretan. Erdi eta goi mailako ikasketen kategorietarako nabarmena da HHAetan dauden emakumeen proportzioa.


Nabarmenak dira ABLEen bidez talde guztietarako egindako kontratuak, generoaren eta ikasketa mailaren arabera alderik egon gabe.

Oharra: Eskualde mailako informazioa baino ez dago.

Kontratazioen analisia

M14. Sexuaren araberako kontratu motak (2012)

Arrigorriagako sexuaren araberako kontratu motak, 2012



Arrigorriagan 2012an erregistratu diren enplegu berrien aldi baterako kontratuek kontratazio berrietako langileek jasaten dituzten laneko ezegonkortasunaren eta segurtasunik ezaren maila handia islatzen dute, horiek kontratu guztien % 93 baitira.

Sexuaren arabera, kontratu gehiago egin zaizkie gizonei (% 53) emakumeei baino (% 40).

Arrigorriagako lan-merkatuaren analisia

Laburpena:

Ondorio gisa, lan-merkatuaren analisiari dagokionez, honako hau adierazi da:

Lan-merkatuaren analisiaren ondorioak:

Arrigorriagako biztanleria aktiboa etengabe handitu da, eta azken 25 urtean sexuen arteko aldea murriztu da. Hona hemen horren arrazoiak: emakumeak laneratu dira, eta udalerrriak migrazio saldo positiboa izan du 2001etik aurrera.

Dena den, azken 20 urtean emakumeen jarduera-tasaren kopurua bikoitza baino handiagoa izan den arren, 2010ean % 44,5ekoa izan zen, gizonena % 55ekoa izan zela.

Zerbitzuen sektorea da lanpostu gehien (% 70) dituen, eta horren atzetik Industria (% 19) eta Eraikuntza (% 11) daude.

2009tik 2012ra bitartean langabezian dauden gizonen eta emakumeen proportzioak antzekoak izan diren arren, azken urteotan gizonen langabezia emakumeena baino neurri handiagoan handitu da,

Langabezia nagusi da prestakuntza maila txikia duten kolektiboetan. Hala ere, erdi eta goi mailako ikasketak dituzten langabeen kopurua % 33 handitu da 2011tik 2012ra bitartean.

Eraikuntzaren sektorean langabeak gehitu dira, higiezin burbuilak eztanda egin izanaren ondorioz. Gainerako jarduera-adarretan, langabeziak antzeko eragina izan du.

2012an Arrigorriagan erregistratutako kontratazioen % 69 Zerbitzuen sektorean gauzatu dira, % 16 Eraikuntzan eta % 15 Industrian. Hala eta guztiz ere, kontuan hartu behar da Zerbitzuen sektorearen barnean egondako kontratazioen zati handia ABLEen bidez egindako kontratuei dagokiela. Sexuaren arabera, kontratu gehiago egin zaizkie gizonei (% 53) emakumei baino (% 40).

Enpresa-ehunaren analisia

Xede aldagaiak (1.a 2tik):

Arrigorriagako enpresa-ehunaren analisia bi ikuspegi bereizitan oinarritu da: Bata estatistika-iturrietatik ateratako aldagaien analisian oinarritu da, eta bestea udalerriko enpresei zuzendutako galdera-sorta baten bidez prestatu da. Lagina 34 enpresakoa izan da.

Aztertutako aldagaiak:

| | |
|-------------------------|--|
| Informazio estatistikoa | Jarduera-adarraren araberako establezimenduen kopurua (2011) |
| | Sektoreen araberako balio erantsi gordina (2008) |
| | Sektoreen araberako BPGd-aren bilakaera (1996-2008. Bost urteko saila) |
| | I+Gko barneko gastua: eskualde mailako BPGd osoaren % (2010) |
| | 10 langile eta gehiagoko establezimenduak, eskualde mailan berrikuntza motaren bat (teknologikoa eta/edo ez-teknologikoa) gauzatzen dutenak (2004-2010. Bi urteko saila) |

Enpresa-ehunaren analisia

Xede aldagaiak (2.a 2tik):


Aztertutako aldagaiak:

| | |
|-------------------|---|
| Galdera- sorta | Enpleguaren eta jardueraren azken 2-3 urteetako joerak eta horren arrazoiak |
| | Enpleguaren eta jardueraren hurrengo 2-3 urteetako etorkizuna eta horren arrazoiak |
| | Plantillen murrizketek edo balizko gehikuntzek eragindako lanpostuen tipologia |
| | Plantillari eusteko edo hori gehitzeko zailtasunak |
| | Enpresek hainbat enplegu eragilerekin duten harremana |
| | Enpresaren lehiakortasunari eustea edo hori hobetzea ahalbidetzen duten elementuak |
| | Lehiakortasuna hobetzeko arloan abiarazi beharreko ekintzak eta horretarako dauden zailtasunak |
| | Langileentzako heziketa jarduerak garatzeko maila eta horretarako dauden zailtasunak |
| | Enpresen eta enplegu eragileen arteko lankidetzaren sare batean parte hartzeko aukerak eta oztopoak |

Establezimenduak

TE1.1. Jarduera-adarraren araberako establezimenduak (2011)

Arrigorriagako jarduera-adarraren araberako establezimenduen kopurua (%), 2011



Nahiz eta M6 irudian Merkataritzaren adarreko landunek lehenengo kolektiboa (% 30) osatzen duten, oso nabarmena da Arrigorriagan dauden saltegien proportzioa (% 41), jarduera-adarren arabera dauden gainerako establezimenduen aldean.


Halaber, antzeman da eraikuntza establezimenduen proportzioa (% 17) sektoreko landunen proportzioa (% 12) baino pixka bat handiago dela.

Baina industria establezimenduen proportzioari (% 14) eta HHAAei (% 5) dagokienez, landunen proportzioa handiagoa da (% 21 eta % 17, hurrenez hurren).

Egitura ekonomikoa

TE1.2. Sektoreen arabeko balio erantsi gordina (2008)

Arrigorriagako, Arratia-Nerbioiko, Bizkaiko eta EAEko lurralde eremuen eta sektorearen arabeko balio erantsi gordina (%), 2008




Bizkaian eta EAEn Zerbitzuen sektoreak balio erantsi gordin osoaren gainean duen proportzioa industriak eta eraikuntzak dutena baino askoz handiagoa da.

Arrigorriagako balio erantsi gordinaren % 48 Zerbitzuen sektoreak sortzen du, eta, Bizkaiko eta EAEko datuen aldean, nabarmena da industriak udalerritari ekartzen dion balioa: Establezimenduen % 14 hartzen ditu, saltegiak % 41 direla, eta, hala ere, ekoizpen egitura osoaren % 40,5 sortzen du.

Egitura ekonomikoa

TE1.3. Arrigorriagako BPGd-aren bilakaera (1996-2008)

Arrigorriagako BPGd-aren %ren sektoreen araberako bilakaera (1996-2008)




Eraikuntzak BPGd-aren gainean duen proportzioa ia bikoiztu da: 2000n % 8,6koa zen, eta 2005ean, berriz, % 15,1koa. Horrek neurri handian azaltzen du udalerrian 2001etik 2004ra bitartean egondako biztanleriaren gehikuntza.

Industriak BPGd osoaren gainean 2005ean izan zuen eta eraikuntzaren agerpen handiagoak eragin zuen murrizketa bat izan ezik, sektoreak sortzen duen BPGd-a egonkorra izan da aztertutako aldian.

I+G+B

TE1.4. I+Gko barneko gastua (2010)

**Bizkaiko eskualdeetako I+Gko barneko gastua (%),
2010**




BPGd-arekiko I+Gko gastuaren zati gehiena Bilbo Handian dago, gastu osoaren % 82 hartzen baitu.

Durangaldearen ezaugarria industria asko izatea da, eta horixe da, hain zuzen ere, I+Gko barneko gastu handiena (% 9) egiten duen bigarren eskualdea. Gainerako eskualdeek proportzio oso txikia dute, % 1 eta % 3 artekoa izan ohi dena. Arratia-Nerbioin % 0,5ekoa baino ez da.

Lurralde historikoei dagokienez, Bizkaiak BPGd-aren % 47,3 hartzen du I+Grako, Gipuzkoak % 40,1 eta Arabak % 12,6%.

TE1.5. Berrikuntza motaren bat gauzatzen duten establezimenduak (2004-2010)

10 langile eta gehiagoko establezimenduak, berrikuntza motaren bat (teknologikoa eta/edo ez-teknologikoa) gauzatzen dutenak (%), 2004-2010




2007ra arte, Arratia-Nerbioiren portaera eta Bizkaiarena antzekoak izan ziren. 2007tik aurrera, haren bilakaera eta EAERena parekoak izan dira, eta etengabea da % 40ren inguruan.

Aldian gorabehera handiak egon dira hiru LHetarako. Arabak eta Gipuzkoak antzeko portaera izan dute 2007tik aurrera, goranzko joera agertuta; Bizkaia, ostera, batezbestekoaren azpitik egon da ia aldi osoan, eta beheranzko joera agertu du. Uste da gainerako lurraldeekin duen aldea handitzen jarraituko duela.

Arrigorriagako enpresen iritziaren eta pertzepzioaren analisia

TE2.1. Lagineko enpresen sektoreen araberako tamaina

Lagineko enpresen sektoreen araberako tamaina




Lagina orekatua da, sektore bakoitzeko dauden establezimenduen kopuruari dagokionez.

Arrigorriagako enpresen iritziaren eta pertzepzioaren analisia

TE2.2. Azken 3 urteetan plantilla murriztu duten enpresak

Azken 3 urteetan plantilla murriztu duten enpresak eta horren arrazoa



- Bestelakoak
- Enpresaren zenbait jarduera kanpoan kontratatzea
- Antolaketa eta kudeaketa sistemaren aldaketak
- Arrazoi teknologikoak
- Langileak egungo beharrezanetara neurri txikian egokitzea eta prestakuntza urria izatea
- Krisia
- Ez da plantilla murriztu


Azken 3 urteetan enpresen % 56 inguruk plantilla murriztu dute.

Plantilla murriztu duten enpresa gehienek egoera hori krisiak eragin duela adierazi dute.

Arrigorriagako enpresen iritziaren eta pertzepzioaren analisia

TE2.3. Hurrengo 2-3 urteetan plantilla murriztea aurreikusi duten enpresak

Hurrengo 2-3 urteetan plantilla murrizteko aurreikuspena



Inkesta egin duten enpresen ia % 18k aurreikusi dute plantilla murriztea hurrengo 2-3 urteetan.


Proporzionaliki, murrizketa hori iraunkorragoa izango da Eraikuntzaren sektorean.

Zerbitzuen eta Industriaren sektoreetako enpresei dagokienez, aurreikuspen hori askoz txikiagoa da.

Arrigorriagako enpresen iritziren eta pertzepzioaren analisia

TE2.4. Hurrengo 2-3 urteetan plantilla murrizteko aurreikuspena, sektoreen eta profilen arabera

Lanpostuak murrizteko aurreikuspena, sektoreen eta profilen arabera




Plantillaren balizko murrizketa batean desagertzeko arrisku handiena duten profilak ekoizpen langileenak eta administrarienak dira.

Honako hau da arrisku nagusia: kolektibo horien zati bat prestakuntza txikia duten langileek osatzen dute, eta horrek heziketa maila txikia duten langabeen problematika areagotuko luke.

Arrigorriagako enpresen iritziaren eta pertzepzioaren analisia

TE2.5 Hurrengo 2-3 urteetan plantilla gehitzeko edo horri eusteko motibazioa

Plantilla gehitzeko edo horri eusteko motibazioa, sektorearen arabera




Hurrengo 2-3 urteetan plantilla gehitzea aurreikusi duten enpresek eskaera gehitzea ekarriko omen duen merkatuaren susperraldian oinarritzen dute beren aurreikuspena.

Hala ere, bai industriaren sektorean bai eraikuntzaren sektorean, enpresa gehienek lanpostuei eustea aurreikusi dute.

Arrigorriagako enpresen iritziaren eta pertzepzioaren analisia

TE2.6 Profilaren araberako kontratazio berriak eta/edo berritzeak

Profilaren araberako kontratu berriak eta/edo berritzeak




Plantilla murriztea aurreikusi ez duten enpresa gehienek lanpostu guztiei eustea espero dute.

Lanpostuak gehitzea eta/edo horiei eustea aurreikusi duten enpresei dagokienez, ekoizpen langileen alde egiten dute nagusiki.

Arrigorriagako enpresen iritziaren eta pertzepzioaren analisia

TE2.7 Plantilla gehitzeko oztopoak

Plantilla gehitzeko oztopoak




Plantilla gehitzea aurreikusi ez duten enpresak alde batera utzita, horretarako oztoporen bat aurkitu duten enpresen kasuan nabarmenak dira ekonomia- eta finantza-zailtasunak.

Gutxi batzuek lanpostu zehatz batzuetarako langile gaituak aurkitzeko zailtasuna aipatu dute.

Arrigorriagako enpresen iritziaren eta pertzepzioaren analisia

TE2.8 Hurrengo 2-3 urteetarako jarduera aurreikuspenak

Hurrengo 2-3 urteetarako jarduera aurreikuspena



Inkesta egin duten enpresen % 6k epe laburrean jarduera ixtea aurreikusi dute; % 50 inguruk, aldiz, jarduera egonkortzea aurreikusi dute.


Aipagarria da bost enpresatatik batek etengabe handitzea espero duela, krisiaren epe ertainerako/luzerako ikuspegiak gorabehera.

Beste batzuek (% 20) adierazi dute ez direla fidatzen aurreikuspenekin.

Arrigorriagako enpresen iritziaren eta pertzepzioaren analisia

TE2.9 Lehiakortasunerako eta etorkizuneko biziraupenerako funtsezko elementuak

Lehiakortasunerako eta biziraupenerako funtsezko elementuak




Inketa egin duten enpresen % 38k uste dute kostuen murrizketa biziraupenerako funtsezko elementua dela.

Aldi berean, asko dira berrikuntza (% 29) eta/edo langileen balio-aniztasuna (% 32) enpresaren lehiakortasunerako eta biziraupenerako funtsezko faktoreak direla uste duten enpresak.

Arrigorriagako enpresen iritziaren eta pertzepzioaren analisia

TE2.10 Eskualdeko enplegu eragileren batekin harremanetan jarri diren enpresak

Enplegu eragileren batekin harremanetan jarri diren enpresak




Arrigorriagako enpresa gehienak ez dira harremanetan jarri enplegu eragileekin.

Arrigorriagako enpresen iritziaren eta pertzepzioaren analisia

TE2.11 Eskualdeko enplegu eragileren batekin harremanetan jarri diren enpresak

Harremanetarako enplegu eragileak



Enpresek harremanetan jartzeko hautatu dituzten enplegu eragileen artean, nabarmenak dira Lanbide eta Lanbide Heziketako zentroak.


Halaber, aipagarria da enpleguari lotutako kudeaketetarako Udalera jotzen duten enpresen portzentajea.

Enplegu eragile gisa "Bestelakoak" aukera aipatu duten enpresei dagokienez, adierazi behar da kasu gehienetan Aldi Baterako Lanerako Enpresak aipatu dituztela.

Arrigorriagako enpresen iritziaren eta pertzepzioaren analisia

TE2.12 Enplegu eragileekin harreman handiagoa egon beharko litzatekeela uste duten enpresak

Enpresen eta enplegu eragileen artean elkarreragin handiagoa egon beharko litzatekeela uste duten enpresak




Enpresetako asko enplegu eragile batekin harremanetan jarri ez direla alde batera utzita, inkesta egin duten enpresa askok uste dute elkarreragin handiagoa egon beharko litzatekeela enpresen eta enplegu eragileen artean.

Arrigorriagako enpresen iritziaren eta pertzepzioaren analisia

TE2.13 Enpresek azken 3 urteetan egindako heziketa jardueren indarra

Enpresek azken 3 urteetan egindako heziketa jardueren indarra




Enpresa gehienek uste dute heziketa lehiakortasunerako funtsezko faktorea dela.

Dena den, enpresen erdiak baino gehiagok ez dute gauzatu heziketa jarduerarik langile guztientzat, eta 5 enpresatik batek ez du inolako heziketa motarik eskaini.

Arrigorriagako enpresen iritziaren eta pertzepzioaren analisia

TE2.14 Langileei heziketa jarduerak eskaintzea eragozten duten oztopoak

Heziketa jarduerak eskaintzea eragozten duten oztopoak



Enpresen % 16k uste dute oztopo garrantzitsuenetako bat ekonomia- eta finantza- zailtasunak direla. Beraz, horrek ez dakar funtsezko arazorik.


Enpresen % 48k uste dute heziketa jarduerak eskaintzeko orduan dauden zailtasun garrantzitsuenetako bat langileak libre ez egotea dela.

% 7k baino ez dute adierazi heziketa jarduera ez jakitea enpresarako zailtasuna dela.

Arrigorriagako enpresen iritziaren eta pertzepzioaren analisia

TE2.15 Enpresen eta gizarte-eragileen arteko lankidetzaren beharra

Enpresen eta gizarte-eragileen artean lan egiteko eta informazioa trukatzeko sare baten beharra




Inkesta egin duten enpresen % 75ek baino gehiagok uste dute udalerriko gizarte-eragileekiko lankidetzaren beharra handiagoa dela.

Arrigorriagako enpresen iritzia eta pertzepzioaren analisi

TE2.16 Lankidetzaren sare bat sortzearekin batera sor daitezkeen aukerak

Lankidetzaren sare bat sortzearekin batera sor daitezkeen aukerak




Lankidetzaren sare bat sortzeak enpresei eskain diezazkiekeen aukerei buruzko pertzepzio arrazoiz guztien artean banatzen da antzeko proportzioan.

Nolanahi ere, nabarmendu behar da jakintzen eta teknologiaren enpresen arteko sozializazioa, baita banaka eskuratu ezin diren proiektuak eta/edo aukerak eskuratzea ere.

Arrigorriagako enpresen iritziaren eta pertzepzioaren analisia

TE2.17 Lankidetzaren sare batean parte hartzearen elementu negatiboak

Lankidetzaren sare batean parte hartzearen elementu negatiboak



Kasu honetan, alde batetik, denborarik eza dago lankidetzaren sare batean parte hartzeak dakarren alde negatibo gisa, eta, beste aldetik, lehiakideek enpresaren jakintzei eta teknologiari etekina ateratzeko beldurra.

% 11k baino ez dute uste ez dagoela inolako elementu negatiborik lankidetzaren sare batean parte hartzean.

Enpresa-ehunaren analisia

Laburpena (1.a 4tik)

Ondorio gisa, enpresa-ehunaren analisiari dagokionez, honako hau adierazi da:

Enpresa-ehunaren analisiaren ondorioak:

Enpresa-egituraren analisia

Zerbitzuen sektorea Arrigorriagan agerpen handiena duena da. BPGd-aren % 48koa da, landunen % 70 hartzen du, eta establezimenduen % 41 baino ez dira saltegiak. Haren proportzioa handitzen joan da etengabe 2000tik 2008ra. Hori dela eta, epe ertainera joera horrek irautea espero da.

Industriak funtsezko eginkizuna dauka udalerriko ekonomian. Nahiz eta azken urteotan haren proportzioa murrizten joan den eta uste den joerak iraungo duela, 2008an sektorea BPGd-aren % 40,5ekoa zen.

Industriako establezimenduen portzentajea (% 14) saltegiarena (% 41) baino askoz txikiagoa da, eta landunak (% 21) zerbitzuen sektorekoak (% 70) baino askoz gutxiago dira. Hala eta guztiz ere, BPGd-aren gainean duten proportzioa berdintsua da. Hori hainbat arrazoiengatik gerta daiteke: eskualdeko industria balio erantsi handikoa da edo sektoreak oinarritzko zerbitzuak edo balio erantsi txikia dutenak barne hartzen ditu.

Eskualdeko I+Gko barneko gastua Bizkaiko gastu osoaren % 0,5ekoa da. Dena den, berrikuntza motaren bat egiten duten establezimenduen kopurua eta EAEkoa (% 40) antzekoak dira, eta hurrengo urteetan iraunkorra izatea aurreikusi da.

Enpresa-ehunaren analisia

Laburpena (2.a 4tik)

Enpresa-ehunaren analisiaren ondorioak

Galdera-sorta

Inkesta egin duten enpresen ia % 56k azken 2-3 urteetan plantilla murriztu dutela alde batera utzita, enpresen % 17k baino ez dute aurreikusi lanpostuak murriztea hurrengo 2-3 urteetan.

Eraikuntzaren sektorea da proportzionalki ikuspegi txarrenak agertzen jarraitzen duena. Inkesta egin duten enpresen % 50ek hurrengo 2-3 urteetan plantilla murriztea aurreikusi dute.

Enpresen % 39k baino gehiagok ez dute aurreikusi epe laburrean edo ertainean handitzea. Dena den, balizko handitzearen aurrean, etekin handiena aterako duen kolektiboa ekoizpen langileena izango da.

Plantillen balizko murrizketen aurrean, profil horixe (ekoizpen langileak) izango da eragin handiena jasango duena, eta, horren atzetik, administrazio langileena.

Ekoizpen langileak izan dira gorabehera gehien jasan dituen eta jasango dituen. Profil horren barnean daude behe-prestakuntza duten langile gehienak.

Industriaren eta zerbitzuen sektoreetan inkesta egin duten enpresen % 44 inguruk eskaeraren gehikuntza aurreikusi dute, langileen (eta bereziki ekoizpen langileak) kopurua neurri txikian gehitzea ahalbidetuko diena.

Enpresa-ehunaren analisia

Laburpena (3.a 4tik)

Enpresa-ehunaren analisiaren ondorioak

Galdera-sorta

Inkesta egin duten enpresen % 5ek baino ez dute aipatu langile gaituak aurkitzeko zailtasuna, plantilla gehitzeko oztopo gisa. Plantilla gehitzeko aukera izan dezaketen enpresetarako, ekonomia- eta finantza-zailtasunak dira oztopo garrantzitsuena (% 65).

Enpresen % 68k baino gehiagok hurrengo 2-3 urteetan jarduerari eustea edo hori neurri txikian handitzea aurreikusi dute.

Enpresen % 46k ez dute aurreikusi erretiroen ondoriozko plantilla berritzerik; % 39k, berriz, plantilla osoaren % 10etik beherako berritzea aurreikusi dute.

Enpresen lehiakortasunari eusteko, beharrezkoak dira kostuen murrizketa, berrikuntza eta langileen balio-aniztasuna. Horri lotutako ekintzaren bat gauzatzea aurreikusi duten enpresak kostuen murrizketan oinarrituko dira funtsean.

Enpresen % 68 ez dira inoiz harremanetan jarri enplegu eragileekin, eta, harremanetan jarri direnen artean, % 28 Lanbiderekin eta % 22 Lanbide Heziketako zentroekin jarri dira harremanetan. Aipagarria da enpresen % 28k beste eragile batzuetara jo izana, gehienek ABLEak aipatu dituztela.

Enpresa-ehunaren analisia

Laburpena (4.a 4tik)

Enpresa-ehunaren analisiaren ondorioak

Galdere-sorta

Enpresen % 41ek langile guztientzako heziketa eskaini du azken 2-3 urteetan, baina bost enpresatetik ia batek ez du inolako heziketa motarik eskaini aldi horretan.

Heziketa eskaintzeko antzemandako oztopoen artean, nagusiak dira langileek denborarik ez izatea (% 48) eta ekonomia- eta finantza-arrazoiak (% 16). Kasu honetan, heziketaren balizko finantzabideei buruzko informazio urria egon daiteke.

Lau enpresatetik hiruk uste dute lankidetzaren batean parte hartzea interesgarria izan daitekeela, banaka garatu ezin diren proiektuetan parte hartzeko eskain ditzakeen aukerengatik eta informazio eta jakintza garrantzitsuak eskuratzeko aukera emateagatik.

Mota horretako lankidetzaren batean antzematen diren arriskuak honako hauek dira: denborarik eza eta lehiakideek jakintza eta teknologia partekatuei etekina ateratzeko arriskua.

Udalerriko enpleguaren arloko gaitasunak eta azpiegiturak

Laburpena (1.a 2tik)

Udalerriko gaitasunen analisia alkatearekin eta Udaleko enplegu teknikariarekin egindako elkarrizketa kualitatiboetan oinarritu da.

Gaitasunen eta azpiegituren analisia

Arrigorriagako enpresa-ehunaren bilakaera historikoaren ezaugarri nagusia Bilborekiko eta Basaurirekiko hurbiltasuna izan da. Herri handietatik hurbil egoteak hainbat aukera eskaini dizkio, adibidez, zerbitzuen eskaintza zabala eskuratzea. Baina, aldi berean, faktore hori berari bada arriskua eta mehatxua, jarduera ekonomikoaren eta enpleguaren zati handia herri horietara bideratzen baita.

Udalerraren jarduera ekonomikorako berariazko proportzio handia izan duten edo gaur egun duten enpresa handiak daude (adibidez, FYM).

Arrigorriagak enplegu teknikari bat duen enplegu bulegoa dauka.

Oro har, ez da ezarri enpleguaren eta garapen ekonomikoaren arloetako politikarik eta helbururik.

Oro har, enpresa-ehunarekiko harremana oso urria da, nahiz eta Udalak interes handia daukan enpresekin harremanak ezartzeko.

Udalerriko enpleguaren arloko gaitasunak eta azpiegiturak

Laburpena (2.a 2tik)

Gaitasunen eta azpiegituren analisia

Enpresa-ehuna, batez ere industriari lotuen dagoena, udalerraren kanpoaldean kokatutako industrialdeetan dago. Zenbait kasutan industrialde horiek zaharkituta daude.

Udalerriko industrialdeak jabetza pribatukoak dira. Hori dela eta, Udalak horien gainean dituen eskumenak mugatuak dira.

Oro har, ez dago lurzorua industrializatzeko proiekturik, eta uste da gaur egungo industrialdeetan oraindik handitzeko aukera dagoela, bai soberako lurzorua egoteagatik, bai zenbait pabilioi huts egoteagatik.

Ez dago heziketa eskaintzaren aniztasunik. Arrigorriagak eskualdeko Lanbide Heziketako zentro bakarra dauka, eta eraikuntzaren sektorean espezializatuta dago. Hala ere, inguruan (Basauri eta Laudio) badaude eskaintza anitza duten zentroak.

Diagnostikoaren ondorioak. AMIA analisia

Ahuleziak (1.a 3tik)

Xede eremuak modu xehakatuan aztertu eta gero, jarraian ondorio adierazgarrienak adierazi dira, udalerriko ahulezien eta indarren zein aurrean dituen mehatxuen eta aukeren matrize batean egituratuta.

Ahuleziak

| | |
|-------------------------------|---|
| Demografia eta Gizartea | Udalerriko migrazio saldoaren joera beheranzkoa da, Orako joera duela. Joera horrek Arrigorriagan finkatu ziren gazteen migrazioak eragindako aurreko bilakaera apurto du. |
| | Herrialde garatuen joerari jarraituta, biztanleria zaharkitzen ari da pixkanaka-pixkanaka. |
| | Gero eta biztanle gaituagoak egoteko joera dagoen arren, biztanleriaren ia erdiak lehen mailako ikasketak baino ez dituzte. |
| Lan-merkatua | Langabezia nagusi da prestakuntza maila txikia duten kolektiboetan. Hala ere, erdi eta goi mailako ikasketak dituzten langabeen kopurua % 33 handitu da 2011tik 2012ra bitartean. |
| | Eraikuntzaren sektorean langabeak gehitu dira, higiezin burbuilak eztanda egin izanaren ondorioz. Gainerako jarduera-adarretan, langabeziak antzeko eragina izan du. |

Diagnostikoaren ondorioak. AMIA analisia

Ahuleziak (2.a 3tik)

Ahuleziak

| | |
|---------------|---|
| Lan-merkatua | Lau kontratutatik bat ABLEen bidez egiten da talde guztietarako, generoaren, jarduera-adarraren eta ikasketa mailaren arabera alderik egon gabe. |
| | Kontratazio berriak lehen eta bigarren mailako ikasketak eta LH dituzten kolektiboetara egin zaizkie, merkataritzaren eta industriaren adarretan. Horrek goi prestakuntzarik behar ez duen sektore ekonomiko baten agerpena adieraz dezake. |
| Enpresa-ehuna | Eskualdeko I+Gko barneko gastua nahiko txikia da, gainerako eskualdeek Bizkaiko gastu osoari egiten dioten ekarpenaren aldean. |
| | Inkesta egin duten enpresen % 56 inguruk plantilla murriztu dute azken 2-3 urteetan. |
| | Ekoizpen langileek enpleguaren proportzio handiena osatzen dute, eta talde hori da merkatuaren gorabeherak jasateko arrisku handiena duena. |

Diagnostikoaren ondorioak. AMIA analisia

Ahuleziak (3.a 3tik)

Ahuleziak

Gaitasunak eta azpiegiturak

Ia ez dago enpleguaren eta garapen ekonomikoaren arloetako udal politikarik eta helbururik.

Udalaren eta enpresen arteko harremana oso txikia da.

Enpresa guneetako batzuk zaharkituta edo narriatuta daude.

Ez dago heziketa eskaintzaren aniztasunik. Arrigorriagak eskualdeko Lanbide Heziketako zentro bakarra dauka, eta eraikuntzaren sektorean espezializatuta dago.

Diagnostikoaren ondorioak. AMIA analisia

Indarrak (1.a 2tik)

Indarrak

| | |
|-------------------------------|---|
| Demografia eta Gizartea | 2000-2010 aldian, Arrigorriagako biztanleriak gora egin du, 2001etik aurrera izan duen etorreren gehikuntzari eta, ondoren, migrazio fluxu positiboaren ondoriozko hazkunde begetatibo txikiari esker. Udalerrian erregistratutako migrazioa gazteek eragin dute gehienbat. |
| | Erdi eta goi mailako ikasketak dituzten biztanleen proportzioak pixkanaka-pixkanaka gora egiten jarraitu du, biztanleria osoaren aldean gazteen proportzioa oso txikia baita. |
| Lan-merkatua | Udalerriko biztanleria aktiboa etengabe handitu da, eta azken 25 urtean sexuen arteko aldea murriztu da. Hala ere, emakumeen jarduera-tasa (% 44,5) gizonena (% 55) baino askoz txikiagoa da. |
| | Nahiz eta langabeziak neurri handiagoan eragiten dien behe prestakuntza duten pertsonei, kontratazioa ere segmentu horretan pilatzen da nagusiki. |
| Enpresa-ehuna | Zerbitzuen sektorea Arrigorriagan agerpen handiena duena da. BPGd-aren % 48koa da, landunen % 70 hartzen du, eta establezimenduen % 41 baino ez dira saltegiak. |

Diagnostikoaren ondorioak. AMIA analisia

Indarrak (2.a 2tik)

Indarrak

| | |
|-----------------------------|---|
| Enpresa-ehuna | Industriak funtsezko eginkizuna dauka Arrigorriagako ekonomian. Beheranzko joera agertu arren, eskualdeko BPGd-rako ekarpena oso nabarmena da (% 40,5 2008an). |
| | Industriako establezimenduen portzentajea (% 14) saltegiena (% 43) baino askoz txikiagoa da, eta landunak (% 21) zerbitzuen sektorekoak (% 70) baino askoz gutxiago dira. Hala eta guztiz ere, BPGd-aren gainean duten proportzioa berdintsua da. Hori hainbat arrazoiengatik gerta daiteke: eskualdeko industria balio erantsi handikoa da edo zerbitzuen sektoreak oinarrizko zerbitzuak edo balio erantsi txikia dutenak barne hartzen ditu. |
| Gaitasunak eta azpiegiturak | Enpresa guneetan oraindik tokia dago, bai soberako industria-lurzorua egoteagatik bai okupa daitezkeen zenbait pabilioi huts egoteagatik. |
| | Udalerriko irisgarritasuna eta komunikazioak onak dira, nodo garrantzitsuekin (adibidez, Bilbo, Loiuko aireportua eta A8 eta A68 autobideak) erraz konektatzen dela. |

Diagnostikoaren ondorioak. AMIA analisia

Mehatxuak (1.a 1etik)

Mehatxuak

| | |
|-----------------------------|---|
| Demografia eta Gizartea | Higiezinaren merkatuaren geldialdiak hiritik hurbil dauden etxebizitza merkeagoak bilatzen dituzten beste herri edo eskualde batzuetako gazteak erakartzeko aukerari eragiten dio. |
| Lan-merkatua | Ekonomiaren joerak iragartzen du krisiak hurrengo 3 urteetan, gutxienez, iraungo duela. |
| | Udalerriak gazte gaituentzat eskain ditzakeen aukera mugatuek gazteak beste eskualde, probintzia edo herrialde batzuetara joatea eragin dezakete, horrela etorkizuneko garapen ekonomikorako funtsezko oinarria galdua. |
| Enpresa-ehuna | Azalera handietatik (adibidez, Bilbondo edo Barakaldoko Megapark) hurbil egoteak tokiko merkataritzari eragiten dio. |
| Gaitasunak eta azpiegiturak | Bizkaiko beste eskualde batzuetan enpresa parkeak eta azpiegitura modernoagoak egoteak balio erantsi handiko enpresen kokapenari eragin diezaioke. |
| | Ekintzaitzarako azpiegiturarik eta/edo erraztasunik ez egoteak enpresa proiektu berriak udalerrian kokatzea eragozten du. |

Diagnostikoaren ondorioak. AMIA analisia

Aukerak (1.a 1etik)

Aukerak

| | |
|--------------------------------|---|
| Demograta eta Gizartea | Zenbait pertsonak, hiritik gertu egonda, metropoliaren erritmoarekin zerikusirik ez duten guneetara joateko joera daukate. Udalerriak joera hori aprobeitza lezake. |
| Enpresa -ehuna | Enpresen % 68k hurrengo 2-3 urteetan jarduerari eustea edo hori neurri txikian handitzea aurreikusi dute. |
| | Kontratatzea aurreikusten duten enpresek ekoizpen lanpostuen alde egingo dute nagusiki. |
| | Lau enpresatetik hiruk uste dute lankidetzaren sare batean parte hartzea interesgarria izan daitekeela. |
| Gaitasunak eta azpiegiturak | Arrigorriagatik hurbil dauden udalerrietatik egiten den turismoak eragin positiboa izan dezake tokiko merkataritzan. |

Enplegu Planaren estrategia

Arrigorriagako Enplegu Planaren gogoetari eta diseinuari buruzko eskema




Arrigorriagako Enplegu Planaren helburu orokorra eta berariazkoak

Helburu orokorra eta berariazkoak

Enplegu Planak lortu behar duen xedea “Helburu orokorra” izenekoan laburbiltzen da, ikuspegi horrek helburuak epe luzera lortzeko prozesua gidatu behar duela.


“Arrigorriagako egoera sozioekonomikoa hobetzea, enplegua eta garapen ekonomikoa eragileak direla azpimarratuta”

Helburu orokorrak funtsezko bi helburu ditu: bata enpleguaren egiturara zuzenduta dago, eta bestea, aldiz, ehun ekonomikora, biak elkarren mende daudela beren emaitzetan.



Orientabide guneak

Orientabide Estrategikoko Guneak



Orientabide guneak

Orientabide Estrategikoko Guneak

“Metodologia” atalean deskribatutako metodologiari jarraituta, Orientabide Estrategikoko Guneak zehaztu dira, jarduera helburu orokorraren eta berariazko helburuen lorpenera bideratzea eta ondoko helburuak eta jarduketak ahaleginak gehiegi sakabanatu gabe pilotzea ahalbidetzen duten ildo estrategiko gisa.

- | | |
|--|--|
| A. Enplegua eta Prestakuntza | Langabeen prestakuntza hobetzeko eta batez ere kolektibo zaurgarrientarako enplegu aukera berrien sorrera sustatzeko orientabide gunea. |
| B. Ehun ekonomikoa | Gaur egungo ehun ekonomikoa dinamizatzeko gunea, enpleguari eusteko eta lehiakortasuna hobetzeko aukera berriak sortzeko asmoz. Aurretik dauden enpresen lehiakortasuna hobetzeko prozesuari ekiteaz gain, arreta jarri beharko du enpresa proiektu berrien sorreran. |
| C. Azpiegiturak eta Komunikazioak | Heziketaren, enpresa-ehunaren garapenaren, ekintzaitzaren eta abarren arloetako jarduketak garatzeko behar diren azpiegiturei laguntzeko gunea. |
| D. Gizartea | Hezkuntzarekin, sormenarekin, berrikuntzarekin, ekintzaitzarekin eta garapen ekonomiko osoarekin konpromisoa hartzen duen dinamika soziala sortzeko gunea. |

Helburu estrategikoak

Helburu estrategikoak


Foroak 36 helburu estrategiko (I. eranskina) zehaztu ditu. Hori dela eta, helburu estrategikoak lehenetsi beharra zehaztu da, asmo handikoa baino errealista den Enplegu Plana izateko asmoz. Deskribatutako metodologiaren arabera, lehenespene sistema bat zehaztu da, horretan kide bakoitzak bere iritziz lehentasunezkoak diren helburu estrategikoak zehaztu dituela. Foroak baliozkotzearen eta lehenestearen ondorioz, lehentasunezko 5 helburu ezarri dira 2013-2015 aldirako. Jarraian, hautatutako helburu estrategikoak zehaztu dira, lehentasun ordenaren arabera:

1. FO1.OE1. Langabeen eta bereziki kolektibo zaurgarrienen prestakuntza hobetzea
2. FO2.OE2. Erakunde publikoen eta pribatuen arteko lankidetzaren hobetzea, enpresa-ehuna hobeto ezagutzeko eta haren beharrezko erantzun ahal izateko asmoz
3. FO1.OE3. Laguntza gehien behar duten kolektiboen kontratazioa sustatzea
4. FO1.OE4. Arrigorriagako bulegoa bultzatzea, teknikariak eta langabeentzako enpleguari eta heziketari buruzko arreta osoa dituen Lanbideko ordezkari bat berruzatzea.
5. FO2.OE5. Toki hutsak ematea itun ekonomiko negoziatu baten bidez, garatzeko bidean egon daitezkeen negozioen instalazioa, ideia berriak eta enpresa mintegi bat sortzea diruz lagunduta.

Jarduketa Plana

Jarduketa Plana vs Jarduketa Eremuak

Jarduketan gogoeta prozesua lehenetsitako helburuetatik aurrera sortzen da. Hurrengo diagraman bistaratzen da nola banakutzen diren Orientabide Estrategikoko Guneak jarduketan multzoa dakarten Jarduketa Eremuetan:



Jarduketa Plana

Helburu estrategikoak vs Jarduketak

Jarraian, aurrez aurreko hirugarren bileran Enplegu Plana 2013-2015erako zehaztutako helburu estrategikoak lortzeko Foroak proposatu dituen jarduketak adieraziko dira. Ikus daiteke ekintzak zehazteko zatian zenbait ekintza gauzatzeak helburu bat baino gehiago lortzen lagunduko duela. Alde horretatik, helburu estrategiko guztien zeharkako bi jarduketa ere proposatu dira.

FO1. OE1. Langabeen eta bereziki kolektibo zaugarrienen gaikuntza hobetzea

| JARDUKETA | JARDUKETA EREMUA | HELBURUA | ZEHARKAKO HELBURUAK |
|--|------------------------|--|--|
| Langabeziako kolektibo zaugarrienerako heziketa | Heziketa eta Gaikuntza | Laguntza gehien behar duten kolektiboak laneratzen laguntzea, haien lan profilekin bat datozen heziketa ibilbideak emanaz. | FO2.OE2. FO1.OE3. FO1.OE4. |
| Gizarte- eta lan-gaitasunen eta trebetasunen garapena | Heziketa eta Gaikuntza | Laguntza gehien behar duten kolektiboak laneratzen laguntzea, gaitasunetan eta trebetasunetan gaituz. | FO2.OE2. FO1.OE3. FO1.OE4. |
| Autoenplegura eta ekintzailtzara bideratutako heziketa | Heziketa eta Gaikuntza | Langabeak laneratzen laguntzea, autoenplegura eta ekintzailtzara bideratzen diren heziketa ekintzen bidez. | FO2.OE2. FO1.OE3. FO1.OE4. FO2.OE5. |

Jarduketa Plana

Helburu estrategikoak vs Jarduketak

FO2.OE2. Erakunde publikoen eta pribatuen arteko lankidetzak hobetzea, enpresa-ehuna hobeto ezagutzeko eta haren beharrezan erantzun ahal izateko asmoz

| Jarduketa | Jarduketa Eremua | Helburua | Zeharkako helburuak |
|--|-------------------------------------|---|----------------------|
| Enpresen eta Udalaren arteko informazio fluxuak hobetzea | Enpresa-ehuna | Enpresen beharrezan buruzko informazioa ahalik eta neurri handiengan ustiatzea, eta Udalak haien beharrezan erantzuteko eskaintzen dituen zerbitzuak ezagutaraztea. | FO1.OE4. FO2.OE5. |
| Lankidetzak eta barneko ekintzaitza | Ekintzaitza eta barneko ekintzaitza | Enpresen lehiakortasuna hobetzea, barneko ekintzaitzaren bidez eta enpresen arteko lankidetzak proiektuak bultzatuz. | FO1.OE3. FO2.OE5. |
| Tokiko merkataritza indartzea | Tokiko merkataritza | Zerbitzuen sektorea dinamizatzea, tokiko saltegietan kontsumoa sustatzeko. | FO1.OE3. FO2.OE5. |

Jarduketa Plana

Helburu estrategikoak vs Jarduketak

FO1.OE3. Laguntza gehien behar duten kolektiboen kontratazioa sustatzea, kontrataziorako pizgarrien bidez

| Jarduketa | Jarduketa Eremua | Helburua | Zeharkako helburuak |
|---|------------------|---|--|
| Kontrataziorako Laguntza Plana Enpresa-ehuna | Enpresa-ehuna | Enpresek laguntza gehien behar duten kolektiboak kontratatzea sustatzea, kontrataziorako pizgarriak eta laguntzak emanez. | FO1.OE1. FO2.OE2. FO1.OE4. FO2.OE5. |
| Udalaren kontratazio plana | Enpresa-ehuna | Zerbitzu publikoetan laguntza gehien behar duten kolektiboak kontratatzea sustatzea. | FO1.OE1. FO2.OE2. FO1.OE4. FO2.OE5. |

Jarduketa Plana

Helburu estrategikoak vs Jarduketak

FO1.OE4. Arrigorriagako bulegoa bultzatzea, teknikariak eta langabeentzako enpleguari eta heziketari buruzko arreta osoa dituen Lanbideko ordezkari bihurrazita

| Jarduketa | Jarduketa Eremua | Helburua | Zeharkako helburuak |
|---|----------------------------|--|--|
| Lanbideko bulego bat ezartzea | Enplegua eta Aholkularitza | Lanbideko bulegoa ezartzea, teknikariak eta langabeentzako enpleguari eta heziketari buruzko arreta osoa dituen. | FO1.OE1. FO1.OE3. |
| Tokiko/Eskualdeko Garapenerako Agentzia sortzea | Enplegua eta Aholkularitza | Udalerrriaren tokiko garapena sustatzea agentzia baten bidez. | FO1.OE1. FO2.OE2. FO1.OE3. FO2.OE5. |
| Lan orientabideko zerbitzua eta lan-poltsaren kudeaketa | Enplegua eta Aholkularitza | Lan arloko aholkularitza eta orientabide zerbitzuak eskaintzea eta Udalaren lan-poltsa kudeatzea, Udalak jada duen zerbitzua indartuz. | FO1.OE1. FO2.OE2. FO1.OE3. FO2.OE5. |

Jarduketa Plana

Helburu estrategikoak vs Jarduketak

FO2.OE5. Toki hutsak ematea itun ekonomiko negoziatu baten bidez, garatzeko bidean egon daitezkeen negozioren instalazioa, ideia berriak eta enpresa mintegi bat sortzea diruz lagunduta

| Jarduketa | Jarduketa Eremua | Helburua | Zeharkako helburuak |
|---------------------------------------|----------------------|--|----------------------|
| Enpresa azpiegituren eta guneen plana | Enpresa azpiegiturak | Enpresa proiektu berriak sortzen laguntzea, guneak egokituz eta industrialdeak eta pabilioiak zaharberrituz. | FO2.OE2. FO1.OE3. |

Jarduketa Plana

Zeharkako jarduketak

Zeharkako jarduketak

| Jarduketa | Jarduketa Eremua | Helburua |
|--|-----------------------------------|--|
| Komunikazio eta sentsibilizazio estrategia | Komunikazioa eta Sentsibilizazioa | Herritarren, enpresen eta Udalaren arteko komunikazio bide eraginkorra sortzea, erakunde publikoen eta pribatuen arteko lankidetzaren harremanak sustatzen dituen, haien beharrezan erantzuteko eta, horrela, Udalak eta herritarrek neurri handiagoan esku hartzea lortzeko, tokiko garapenerako helburuak lortzeko orduan. |
| Jardunbide egokiak zehaztea | Politika publikoak | Lehenetsitako 5 helburuak lortzeko neurriak ezartzea, jardunbide hobeak zehaztuz. |

Jarduketa Plana 2013-2015

Lehenetsitako jarduketak

Asmo handikoa baino errealista den Enplegu Plana egiteko asmoz, eta helburu estrategikoen lehenespenarekin gertatzen den bezala, jarduketak aztertu eta gero, Foroak uste izan du Arrigorriagan enplegua sortzeko eta ekonomikoki garatzeko funtsezkotzat jotzen dituen jarduketak lehenetsi behar direla.

Jarduketak baliozkotzeko, Foroko kideek beren ustez lehentasunezkoak diren 5 jarduketak hautatu behar izan dituzte, 14 jarduketek osatzen duten zerrenda batean (II. eranskina). Puntu gehien eskuratu dituzten jarduketak 2013-2015 aldian abiaraziko dira. Adierazi behar da 5 jarduketa horien hautaketa ez dela behin betikoa; hau da, lan egiteko tarte egon beharko da, horietako baten bat gauzatu ezin bada edo uste bada gainerako 9 jarduketen artean baten bat beharrezkoa dela Plana gauzatzeko. Jarduketak berriro bideratu beharra Planaren gauzatze-maila neurtzeko ezarriko den ebaluazio eta jarraipen sistemari esker antzemango da.

1. Autoenplegura eta ekintzailtzara bideratutako heziketa
2. Udalaren kontratazio plana
3. Kontrataziorako Laguntza Plana
4. Tokiko merkataritza indartzea
5. Enpresen eta Udalaren arteko informazio fluxuak hobetzea

Jarduketa Plana 2013-2015

A1 jarduketa. Autoenplegura eta ekintzailetzara bideratutako heziketa

| | | | |
|-----------------------------|--|---------------------------------------|-------------|
| Helburu estrategikoa | FO1. OE1 Langabeen eta bereziki kolektibo zaurgarrienen prestakuntza hobetzea | Gutxi gorabeherako iraupena | 30 hilabete |
| Titulua | Autoenplegura eta ekintzailetzara bideratutako prestakuntza | | |
| Jarduketa Eremua | Heziketa eta Gaikuntza | | |
| Helburu estrategikoa | Langabeak laneratzen laguntzea, autoenplegura eta ekintzailetzara bideratutako heziketa ekintzen bidez | Lotutako helburu estrategikoak | FO2.OE2. |
| | | | FO1.OE3. |
| | | | FO1.OE4. |
| | | | FO2.OE5. |
| Deskribapena | <p>Jarduketa honen helburua negozio-idea bat duten pertsonen enpresa proiektuak heltzeko behar diren gaitasunak ematea da. Jarduketaren barnean, honako arlo hauek barne hartzen dituzten heziketa jarduerak proposatu dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Enpresa bat sortzeko eta kudeatzeko oinarritzko heziketa. • Berrikuntzara, marketinera, nazioarteko bihurtzera eta produktuen/zerbitzuen aniztasunera bideratutako heziketa. • Sormen, berrikuntza, autoenplegu, eta gaitasun pertsonal eta sozialetara bideratutako heziketa. <p>Jarduketa sormena eta ekintzailetza bultzatzeko jardunaldiak eta hitzaldiak eginez osatuko da, enpresa sareak eta proiektuak sustatzeko asmoz. Alde horretatik, hiru jarduera aurreikusi dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Enpresa proiektuen lehiaketa: negozio bat abiarazteko ideia onenak diruz laguntzeko helburua du. • Konpondu beharreko erronkak: enpresek proposatutakoak, parte-hartzaileek benetako erronketarako konponbideak bila ditzaten. • Parte-hartzaileen eta produktuei eta zerbitzuei orientabide berria eman eta enpresa proiektu berriak berenganatu nahi dituzten enpresen arteko gaikako bilerak. | | |

Jarduketa Plana 2013-2015

A1 jarduketa. Autoenplegura eta ekintzailetzara bideratutako heziketa

| | | | | | | | | | | | | | |
|---------------------------------------|--|------------------------------|--|------------------------|-----|-----------------------------|--------|-------------------|--------|----------------|-----------------|-------------------------------|---|
| Titulua | Autoenplegura eta ekintzailetzara bideratutako heziketa | | | | | | | | | | | | |
| Hartzaileak | Jarduketa negozio-ideia bat duten langabeei zuzenduta dago. Hala ere, arreta berezia jarriko da langabe gazteengan, lan-merkatuan ahalik eta lasterren sartzeko eta horrela adimentsuen ihesa saihesteko | | | | | | | | | | | | |
| Jarduketak | | | | | | | | | | | | | |
| A1.1 | Heziketa jarduerak planifikatzea | | | | | | | | | | | | |
| A1.2 | Parte-hartzaileak zehaztea | | | | | | | | | | | | |
| A1.3 | Heziketa jarduerak gauzatzea | | | | | | | | | | | | |
| A1.4 | Ikastaroaren jarduera osagarriak bultzatzea, sormena eta ekintzailetza sustatzeko | | | | | | | | | | | | |
| Espero diren emaitzak | Parte-hartzaileen kop.: 15 Emandako heziketa ikastaroen kop.: 2 Lehiaketen kop.: 1 Abiarazitako erronken kop.: 8 Gaikako bileren kop.: 3 Jardueren balorazioa: 10etik 8 Sortutako negozioen kop.: 2 | Ebaluazio adierazleak | Parte-hartzaileen kop. Emandako heziketa ikastaroen kop. Lehiaketen kop. Abiarazitako erronken kop. Gaikako bileren kop. Jardueren balorazioa Sortutako negozioen kop. | | | | | | | | | | |
| Gutxi gorabeherako aurrekontua | <table border="1"> <tr> <td>Pertsonako eta urteko kostua</td> <td>40.000</td> </tr> <tr> <td>Berariazko langileen %</td> <td>25%</td> </tr> <tr> <td>Berariazko langileen kostua</td> <td>10.000</td> </tr> <tr> <td>Bestelako gastuak</td> <td>30.000</td> </tr> <tr> <td>GUZTIRA</td> <td>40.000 €</td> </tr> </table> | Pertsonako eta urteko kostua | 40.000 | Berariazko langileen % | 25% | Berariazko langileen kostua | 10.000 | Bestelako gastuak | 30.000 | GUZTIRA | 40.000 € | Balizko finantzabideak | Europako Gizarte Funtza Bizitza Osoan Ikasteko Programa Behargintza BEAZ SPRI |
| Pertsonako eta urteko kostua | 40.000 | | | | | | | | | | | | |
| Berariazko langileen % | 25% | | | | | | | | | | | | |
| Berariazko langileen kostua | 10.000 | | | | | | | | | | | | |
| Bestelako gastuak | 30.000 | | | | | | | | | | | | |
| GUZTIRA | 40.000 € | | | | | | | | | | | | |

Jarduketa Plana 2013-2015

A2 jarduketa. Udalaren kontratazio plana

| | | | |
|-----------------------------|--|---------------------------------------|--|
| Helburu estrategikoa | FO1.OE3. Laguntza gehien behar duten kolektiboen kontratazioa sustatzea | Gutxi gorabeherako iraupena | 30 hilabete |
| Titulua | Udalaren kontratazio plana | | |
| Jarduketa Eremua | Enpresa-ehuna | | |
| Helburua | | Lotutako helburu estrategikoak | FO1.OE1. FO2.OE2. FO1.OE4. FO2.OE5. |
| | Laguntza gehien behar duten kolektiboak lan publikoetan kontratatzea sustatzea. | | |
| Deskribapena | <p>Jarduketa honen bidez, Arrigorriagako langabeak udal lanak egiteko kontratatzea aktibatu nahi da. Horretarako, Udalak lan publikoak garatzeko arloak zehaztu beharko ditu: udal fatxadak zaharberritzea, udal eraikinetan eguzki-plakak instalatzea, pabilioiak eta industrialdeak zaharberritzea, mantentze-lanak, lorezaintza, zarama biltzea, hondakinak kudeatzea eta abar). Lan arloak zehaztu eta gero, egin beharreko lanak behar bezala gauzatzeko aukera ematen duten heziketa/enplegu tailerrak abiarazi beharko dira. Aldi berean, tailer horiek langabeek lanpostuaren beharrezko eginkizunak gauzatzeko behar diren gaitasunak eskuratzea ahalbidetuko dute.</p> <p>Halaber, Planak Udalak egiten dituen adjudikazioetan kolektibo horiek kontratatzeke klausula bereziak gehitzeko aukera hausnartu beharko du.</p> | | |

Jarduketa Plana 2013-2015

A2 jarduketa. Udalaren kontratazio plana

| | | | |
|---------------------------------------|---|--|---|
| Titulua | Udalaren kontratazio plana | | |
| Hartzaileak | Lan-poltsan inskribatuta dauden langabe zaugarrienak | | |
| Jarduerak | | | |
| A2.1 | Egin beharreko lan publikoen udal programa diseinatu eta gauzatzea | | |
| A2.2 | Parte-hartzaileak zehaztea, lan-poltsaren barnean laguntza gehien behar duten kolektiboak lehenetsita | | |
| A2.3 | Udal kontrataziorako klausula bereziak gehitzea | | |
| A2.4 | Udal zerbitzuetan heziketa eta enplegu ikastaroak abiaraztea | | |
| A2.5 | Jarraipena eta kontrola | | |
| Espero diren emaitzak | Gauzatu beharreko proiektu publikoen kop.: 5 Parte-hartzaileen kop.: 15 Emandako ikastaroen kop.: 2 Egindako kontratuen kop.: 10 | Ebaluazio adierazleak | Gauzatu beharreko proiektu publikoen kop. Parte-hartzaileen kop. Emandako ikastaroen kop. Egindako kontratuen kop. |
| Gutxi gorabeherako aurrekontua | Pertsonako eta urteko kostua Berriazko langileen % Berriazko langileen kostua Bestelako gastuak GUZTIRA | 40.000 % 10 4.000 150.000 154.000€ | Balizko finantzabideak Udala |

Jarduketa Plana 2013-2015

A3 jarduketa. Kontrataziorako Laguntza Plana

| | | | |
|-----------------------------|---|---------------------------------------|--|
| Helburu estrategikoa | FO1.OE3. Laguntza gehien behar duten kolektiboen kontratazioa sustatzea | Gutxi gorabeherako iraupena | 30 hilabete |
| Titulua | Kontrataziorako Laguntza Plana | | |
| Jarduketa Eremua | Enpresa-ehuna | | |
| Helburua | Laguntza gehien behar duten kolektiboen kontratazioa sustatzea, kontrataziorako pizgarrien bidez | Lotutako helburu estrategikoak | FO1.OE1. FO2.OE2. FO1.OE4. FO2.OE5. |
| Deskribapena | <p>Jarduketa honen helburua udalerriko enpresak sustatzea da, langabeak kontratatu ditzaten. Horretarako, enpresek udalerriko langabeak kontratatzearen truke, enpresetarako pizgarriak eta hobariak aurreikusten dituen Laguntza Publikoen Plana egitea hausnartu da. Hona hemen proposatzen diren pizgarri ekonomikoen artean nabarmenenak direnak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • OHZren murrizketak • Lokalak eta pabilioiak alokatzeko laguntzak • Zarama bilketaren zergen murrizketak • Eguzki-energia aprobetxatzeko hobariak • Fatxadak eta/edo teiltatuak zaharberritzeko lanetarako hobariak • Gas naturala instalatzeko hobariak <p>Planak enpresetarako laguntzak hedatzeko eta jakinarazteko ekintza bildu beharko du, jarduketan parte hartzera bultzatzeko asmoz. Gainera, Plana behar bezala gauzatzeko funtsezkoa izango da jarduketan esku hartzen duten alderdien (enpresak, udalak eta sindikatuak) konpromisoa lortzea.</p> | | |

Jarduketa Plana 2013-2015

A3 jarduketa. Kontrataziorako Laguntza Plana

| | | | |
|---------------------------------------|--|---------|--|
| Titulua | Kontrataziorako Laguntza Plana | | |
| Hartzaileak | Udalerriko enpresak eta langabeak | | |
| Jarduerak | | | |
| A3.1 | Kontrataziorako laguntza publikoen plana prestatzea | | |
| A3.2 | Udalak kontratazioaren baldintzapean dauden laguntza publikoei jarraitzea eta enpresei horien berri ematea | | |
| A3.3 | Alderdien konpromisoa | | |
| A3.4 | Plana gauzatzea | | |
| A3.5 | Jarraipena eta kontrola | | |
| Espero diren emaitzak | Informazioa jaso duten enpresen kop.: 400 Onura atera dioten enpresen kop.: 10 Egindako kontratuen kop.: 15 Ebaluazio txostenen kop.: 6 | | Ebaluazio adierazleak Informazioa jaso duten enpresen kop. Onura atera dioten enpresen kop. Egindako kontratuen kop. Ebaluazio txostenen kop. |
| Gutxi gorabeherako aurrekontua | Pertsonako eta urteko kostua | 40.000 | Balizko finantzabideak Udala |
| | Berariazko langileen % | % 30 | |
| | Berariazko langileen kostua | 12.000 | |
| | Bestelako gastuak | 0 | |
| | GUZTIRA | 12.000€ | |

Jarduketa Plana 2013-2015

A4 jarduketa. Tokiko merkataritza indartzea

| | | | |
|-----------------------------|---|---------------------------------------|----------------------|
| Helburu estrategikoa | FO2.OE2. Erakunde publikoen eta pribatuen arteko lankidetzeta hobetzea, enpresa-ehuna hobeto ezagutzeko eta haren beharrezanean erantzun ahal izateko asmoz | Gutxi gorabeherako iraupena | 30 hilabete |
| Titulua | Tokiko merkataritza indartzea | | |
| Jarduketa Eremua | Enpresa-ehuna | | |
| Helburua | Zerbitzuen sektorea dinamizatzea, tokiko saltegietan kontsumoa sustatzeko. | Lotutako helburu estrategikoak | FO1.OE3. FO2.OE5. |
| Deskribapena | <p>Aurretik dagoen MIPB (Merkataritza Indartzeko Plan Berezia) kontuan hartuta, jarduketa honek herrian kontsumitzeak dituen abantailen (adibidez, zerbitzuen edo produktuen kalitatea edo eskaintako tratu pertsonalizatua eta konfiantzakoa) balioa azpimarratzeko tokiko kontsumoa sustatzeko ekintzak plan estrategiko batean bildu nahi ditu. Arrigorriagako Merkatarien Elkarteak (Adecka) Basauriko merkataritza dinamizatzeke bulegoaren, CECOBIn eta Bilboko Merkataritza Ganberaren laguntzaz dinamizatzea proposatu da. Gauzatu daitezkeen ekintzen artean, honako hauek nabarmendu dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Sentsibilizazio ekintzak: herrian kontsumitzeko pizgarriak, sentsibilizazio kanpainak eta merkatarientzako berrikuntza jardunaldiak. • Arrigorriaga marka sortzea kalitate ikur gisa; hori kalitate ziurtagiriak ezartzen lagunduz sustatuko da. • Jarduerarako laguntzak: establezimenduak berriztatzea, merkataritza lokalak alokatzeko laguntzak eta alokairurako hobariak. | | |

Jarduketa Plana 2013-2015

A4 jarduketa. Tokiko merkataritza indartzea

| | | | |
|---------------------------------------|---|---------|--|
| Titulua | Tokiko merkataritza indartzea | | |
| Hartzaileak | Udalerriko saltegi guztiak | | |
| Jarduerak | | | |
| A4.1 | Merkatarien Elkartearekin plan estrategikoa prestatzea | | |
| A4.2 | Plana abiaraztea | | |
| A4.3 | Sentsibilizazio ekintzak antolatzea | | |
| A4.4 | Marka diseinatzea | | |
| A4.5 | Zehaztea eta laguntzea, hainbat finantzabide eskuratzeko | | |
| Espero diren emaitzak | Parte hartzen duten saltegien kop.: 50 Bideratutako laguntza proiektuen kop.: 15 Egindako jardunaldien kop.: 6 Sentsibilizazio ekintzen kop.: 10 | | Ebaluazio adierazleak |
| Gutxi gorabeherako aurrekontua | Pertsonako eta urteko kostua | 40.000 | Balitzko finantzabideak |
| | Berriarazo langileen % | % 30 | |
| | Berriarazo langileen kostua | 12.000 | |
| | Bestelako gastuak | 20.000 | |
| | GUZTIRA | 32.000€ | Modernizatorako laguntzen kop. (GV-EJ) SPRI |

Jarduketa Plana 2013-2015

A5 jarduketa. Enpresen eta Udalaren arteko informazio fluxuak hobetzea

| | | | |
|-----------------------------|---|---------------------------------------|----------------------|
| Helburu estrategikoa | FO2.OE2. Erakunde publikoen eta pribatuen arteko lankidetzaren hobetzea, enpresa-ehuna hobeto ezagutzeko eta haren beharrezko erantzun ahal izateko asmoz | Gutxi gorabeherako iraupena | 30 hilabete |
| Titulua | Enpresen eta Udalaren arteko informazio fluxuak hobetzea | | |
| Jarduketa Eremua | Enpresa-ehuna | | |
| Helburua | Enpresen beharrezko buruzko informazioa ahalik eta neurri handienean ustiatzea eta beharrezko horiei erantzuteko Udalak ematen dituen zerbitzuen berri ematea. | Lotutako helburu estrategikoak | FO1.OE4. FO2.OE5. |
| Deskribapena | <p>Arrigorriagako Udalaren eta enpresen arteko harremana oso urria da. Horregatik, funtsezkoa da enpresen eskaerei eta beharrezko buruzko jakintza izatea, alde horretatik jarduketak (lankidetzaren sareak, finantza-erakundeak eta abar) abiarazi ahal izateko. Horrez gain, funtsezkotzat jotzen da Udalak enpresen eskura jartzen dituen zerbitzuen (lan-poltsa, laguntzak eta diru-laguntzak, Enplegu Plana eta abar) berri ematea.</p> <p>Jarduketa honen bidez, informazioaren hedapenari eragin nahi zaio bi noranzkotan:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Udaletik enpresetara, bertan eskaintzen diren zerbitzuen berri emateko eta Enplegu Plana aurkezteko, eta • enpresetatik Udalera, heziketa, kontratazio, laguntza eta diru-laguntza eta abarren arloetan dituzten beharrezkoen berri emateko. <p>Informazioa hedatzeko eta biltzeko baliabide gisa, Udalak udalerriko enpresak bisitatzea hausnartu da.</p> | | |

Jarduketa Plana 2013-2015

A5 jarduketa. Enpresen eta Udalaren arteko informazio fluxuak hobetzea

| | | | |
|---------------------------------------|---|---------|---|
| Titulua | Enpresen eta Udalaren arteko informazio fluxuak hobetzea | | |
| Hartzaileak | Udalerriko enpresak | | |
| Jarduerak | | | |
| A5.1 | Enpresetarako aldizkako bisitak | | |
| A5.2 | Enpresen beharrezko buruzko informazioa biltzea eta Udalak eskaintzen dituen zerbitzuen berri ematea | | |
| A5.3 | Datu-basea sortzea | | |
| A5.4 | Informazioa kudeatzea | | |
| A5.5 | Bi alderdiek denboran egonkorak diren harremanen fluxuari eusteko konpromisoa hartzea | | |
| Espero diren emaitzak | Datu-baseko enpresen kop.: 400 Bisiten kop.: 100 Baterako jardueretan parte hartzen duten enpresen kop.: 50 | | Ebaluazio adierazleak Datu-baseko enpresen kop. Bisiten kop. Baterako jardueretan parte hartzen duten enpresen kop. |
| Gutxi gorabeherako aurrekontua | Pertsonako eta urteko kostua | 40.000 | Balizko finantzabideak Europako Gizarte Funtza EGEF |
| | Berariazko langileen % | % 50 | |
| | Berariazko langileen kostua | 20.000 | |
| | Bestelako gastuak | | |
| | GUZTIRA | 20.000€ | |

Jarduketa Plana 2013-2015

Aurrekontua

| Jarduketak | | Berriazko langileen % | Berriazko langileen kostua* | Bestelako gastuak | GUZTIRA |
|------------|--|-----------------------|-----------------------------|-------------------|-----------------|
| A1 | Autoenplegura eta ekintzaitzara bideratutako heziketa | % 25 | 10.000 | 30.000 | 40.000 |
| A2 | Udalaren kontratazio plana | % 10 | 4.000 | 150.000 | 154.000 |
| A3 | Kontrataziorako Laguntza Plana | % 30 | 12.000 | - | 12.000 |
| A4 | Tokiko merkataritza indartzea | % 30 | 12.000 | 20.000 | 32.000 |
| A5 | Enpresen eta Udalaren arteko informazio fluxuak hobetzea | % 50 | 20.000 | - | 20.000 |
| | | % 145 | 58.000 | 200.000 | 258.000€ |

*Pertsonako eta urteko kostua= 40.000 €

Enplegu Planaren ebaluazio eta jarraipen sistema

Ebaluazio adierazleak

Amaitzeko, Enplegu Planak hainbat helburu eta jarduketa dituenek, jarraipen eta ebaluazio sistema zehaztu da, Planaren gauzatze-maila egiaztatzeko asmoz. Metodo horri esker, alde batetik, aurreikusitakoaren gainean desbiderapenak badaude, balizko zuzenketa ekintzak zehaztu ahalko dira, eta, beste aldetik, egoera aldatzen bada eta Planaren helburu orokorra (Arrigorriagako egoera sozioekonomikoa hobetzea, enplegua eta garapen ekonomikoa eragileak direla azpimarratuta) lortzeko planteamendu berriak behar badira, estrategia berriro zehaztu eta bideratu ahalko da.

Ebaluazioa zehaztutako adierazle motek lortutako emaitzetan oinarrituko da. Horretarako, hiru adierazle mota zehaztuko dira:

| Adierazle motak | |
|-------------------------------|--|
| A. Egite adierazleak | Ekintzen mailan zehaztu dira, aurreikusitako jarduerak zein neurritan egin diren jakiteko. Adib.: emandako heziketa orduen kopurua eta abar. |
| B. Emaitza adierazleak | Adierazle horiek jarduketan eta helburu estrategikoen mailan zehaztu dira, eta garatutako ekintzen bidez lortu diren emaitzei buruzko informazioa eskaini nahi dute. Adib.: gaikuntza jaso duten pertsonen kop., sentsibilizazio jardunaldietan parte hartu duten pertsonen kop. eta abar. |
| C. Eragin adierazleak | Helburu orokorraren lorpen mailan oinarritzen dira. Jarduketa Planak sortutako eraginari buruzko informazioa ematen dute. Adib.: langabezia-tasa, sortutako enpresen indizea eta abar. |

Enplegu Planaren ebaluazio eta jarraipen sistema

Ebaluazio txostenak

Epe laburrerako ebaluazioa

Desbiderapen handirik saihesteko asmoz, hiru hilabeteko gehieneko gabezia duen epe laburrean oinarritutako ebaluazio sistema proposatu da. Ebaluazioak honako hauek biltzen ditu:

- adierazleen emaitzen analisia eta balizko desbiderapenak
- beharbada hiruhilekoan gertatu diren gorabeheren analisia
- alde zuzenetik ezarritako zuzenketa ekintzen jarraipena
- hurrengo hiruhilekorako balizko zuzenketa ekintzen zehaztapena

Gainera, hurrengo hiruhilekorako aurreikusitako jarduketaren plangintza berrikusiko da.

Epe ertainerako ebaluazioa

Sei hilean behin, Enplegu Plana Partaidetza Foroaren esparruan ebaluatuko da. Jarraipen horretan, lortutako emaitzak, desbiderapenak, gorabeherak eta beharbada aldi hartu diren erabakiak ebaluatuko dira. Foro horretan sortutako gogoetak Enplegu Plana egokitzeko edo jarraitzeko gomendioak eta zuzentzarauak ondorizatu beharko ditu.

Azken ebaluazioa

Azken ebaluazioaren txostenak aldi hartutako emaitzak adierazi, eta hasieran ezarritako helburuak zein horien eta azken emaitzaren arteko desbiderapena aipatu beharko ditu.

I. eranskina: Foroak proposatutako helburu estrategikoak



I. eranskina. Foroak proposatutako helburu estrategikoak

Foroak proposatutako helburu estrategikoak

| FO1. Enplegua eta Prestakuntza | |
|--------------------------------|---|
| OE1 | Langabeen eta bereziki kolektibo zaugarrienen prestakuntza hobetzea |
| OE2 | Langabeen prestakuntza hobetzea, aldaketara egokitzeko gaitasun handiagoa eta sektore barneko eta sektore arteko mugikortasuna izan ditzaten |
| OE3 | Laguntza gehien behar duten kolektiboen kontratazioa sustatzea |
| OE4 | Kolektibo eta profesional jakin batzuen lan-baldintzak hobetzea |
| OE5 | Bai langabeentzat bai lanean ari direnentzat sektoreko lanbide ingurunea ematea, plangintza egitea eta lanbide karreretara sartzea ahalbidetzen dietena |
| OE6 | Laguntza eta ikaskuntza ekintzak abiaraztea trebetasun eta gaitasun pertsonal eta profesioaletan |
| OE7 | Lanbideko bulegoa ezartzea, langabeentzako enpleguari eta heziketari buruzko arreta osoa duena |
| OE8 | Enplegu publikoa: aurrekontuaren zati bat inbertitzea igeltseroen, eraikuntza langileen eta lanbide prestakuntza txikia duten pertsonen lan-poltsa batean, hori txandakakoa dela. Udaletik egin ezin bada, kontrataren bidez ezarriko da. |
| OE9 | Berriro banatzeko eta kokatzeko plana |
| OE10 | Langabeak enpresei diruz laguntzen zaizkien barneko heziketa ikastaroetan gehitzea |
| OE11 | Kontrataziorako pizgarriak eta zerga-arinketa |
| OE12 | Udal zerbitzuen enpresa esleipendunei udalerriko langabeak kontratatzeko " klausula sozialak" onartzeko eskatzea |
| OE13 | Udalaren enpresa esleipendunek baliabideen zati handi bat langileak hezteko eta birziklatzeko erabiltzeko eskatzea |
| OE14 | Udalaren enpresa esleipendunei zerbitzuaren hasieratik amaierara arte kontratatutako pertsonak izateko eskatzea (kontratatutako pertsonak horri beren kabuz uko egin ezean) |
| OE15 | Inguruneko enpresek eskatzen duten prestakuntza mailari buruzko informazioa eskuratzea |

I. eranskina. Foroak proposatutako helburu estrategikoak

Foroak proposatutako helburu estrategikoak

| FO2. Ehun ekonomikoa | |
|----------------------|--|
| OE1 | Enpresak lehiakortasunaren arloan gaitzea |
| OE2 | Erakunde publikoen eta pribatuen arteko lankidetzak hobetzea, enpresa-ehuna hobeto ezagutzeko eta haren beharrezko erantzun ahal izateko asmoz |
| OE3 | Ekintzailatza, barneko ekintzailatza eta enpresa berrien sorrera sustatzea |
| OE4 | Enpresen arteko lankidetzak hobetzea, teknologia transferentziari laguntzea eta berrikuntza eta teknologia berriak partekatze itunak ezartzea |
| OE5 | Tokiko merkataritza biziberritzea, erakunde publikoen eta pribatuen arteko lankidetzak handiagotzeko bidez |
| OE6 | Zerbitzuen sektorea dinamizatzea |
| OE7 | Toki hutsak ematea itun ekonomiko negoziatu baten bidez, garatzeko bidean egon daitezkeen negozioen instalazioa, ideia berriak eta enpresa mintegi bat sortzea diruz lagunduta |
| OE8 | Kooperatibak eratzeko laguntzak ematea, laguntza teknikoa eta aholkularitza eskainita |
| OE9 | Tokiko merkataritzarako aurrez aurreko plana prestatzea, herriko salmenta indartuta |
| OE10 | Guneko enpresetan edo saltegietan egindako produktuen gaineko propaganda egiteko eta horiek sustatzeko zerbitzua abiaraztea |
| OE11 | Txikizkako saltegiekin, ETEekin eta ekintzaileekin lankidetzak hitzarmena sinatzea |
| OE12 | Barakaldon dagoen eta ehun ekonomiko indartsuagoa eta anitzagoa ezartzeko helburua duen INNOBAKen antzeko proiektua ezartzea |

I. eranskina. Foroak proposatutako helburu estrategikoak

Foroak proposatutako helburu estrategikoak

| FO3. Gizartea | |
|--|---|
| OE1 | Erakunde publikoen eta gizartearen artean atzeraelikatzen den komunikazio bide eraginkorra zabaldu eta dinamizatzea |
| OE2 | Gizarte sortzaileagoa, aktiboagoa eta ekintzaileagoa sortzea dinamizatzea |
| OE3 | Udalaren eta auzokoen arteko harremana hobetzea, beharriaz erantzuteko |
| OE4 | Komunikabideetan planaren propaganda egitea |
| OE5 | Foroan garatutako lana hedatzea eta herritarrei azaltzea |
| FO4. Azpiegiturak eta komunikazioak | |
| OE1 | Gaur egungo enpresa guneen azpiegiturak eta kokapena hobetzea |
| OE2 | Sarbideak eta zerbitzuak hobetzea |
| OE3 | Neurrira antolatutako konponketei eta hondakinen bilketari eta garbiketari arreta egitea |
| OE4 | Legez kontrako hondakindegien bidezko narriadura saihestea |

II. eranskina: Enplegu Plana 2013-2015erako lehenetsi ez diren jarduketak



II. eranskina. Enplegu Plana 2013-2015erako lehenetsi ez diren jarduketak

A6 jarduketa. Kolektibo langabe zaurgarrientzako berariazko heziketa

| | | | |
|---------------------|---|---------------------------------------|----------------------------------|
| Titulua | Kolektibo langabe zaurgarrientzako berariazko heziketa | | |
| Helburua | | Lotutako helburu estrategikoak | FO2.OE2. FO1.OE3. FO1.OE4. |
| | Laguntza gehien behar duten kolektiboak laneratzen laguntzea, haien lan profilekin bat datozen heziketa ibilbideak emanez | | |
| Deskribapena | Berariazko heziketako proiektuek pertsonen lanpostu zehatz bat gauzatzeko beharrezko heziketa baliabideak ematea dakarte. Jarduketa honen bidez heziketa ikastaroak eskaini nahi dira, langabeei aldaketara egokitzeko eta beren lanbidearen barnean zein beste sektore batzuen artean mugitzeko gaitasun handiagoa izatea ahalbidetzen dietenak. Horretarako, funtsezkoa da bai langabeen lan profilak bai tokiko ehun ekonomikoak eskatzen dituen profilak jakitea. Jarduketa garatzeko, funtsezkoa izango da heziketa hornitzaileekin lan egitea, enpresetako eta saltegietako praktiketarako hitzarmenak dituzten heziketa ibilbideak diseinatzeko asmoz. Halaber, enplegu berrien balizko arlo berriak antzematea edo krisian berraktiba daitezkeen lanbideak edo zereginak berrezartzea proposatu da. | | |
| Jarduerak | | | |
| A6.1 | Arreta jasoko duten kolektibo zaurgarrienak lehenestea | | |
| A6.2 | Heziketa beharizanen diagnostikoa, zehaztutako kolektiboen eta enplegarritasun handiena duten (eta izan dezaketen) tokiko arloen arabera | | |
| A6.3 | Hainbat heziketa zentrotan dagoen heziketa eskaintzari buruzko informazioa biltzea eta jakinaraztea | | |
| A6.4 | Berariazko heziketa programak abiaraztea | | |
| A6.5 | Enpresetako eta saltegietako lan-praktiketarako hitzarmenak | | |

II. eranskina. Enplegu Plana 2013-2015erako lehenetsi ez diren jarduketak

A7 jarduketa. Gizarte eta lan gaitasunak eta trebetasunak garatzea

| | | | |
|---------------------|--|---------------------------------------|----------------------|
| Titulua | Gizarte eta lan gaitasunak eta trebetasunak garatzea | | |
| Helburua | Laguntza gehien behar duten kolektiboak laneratzen laguntzea, gizarte eta lan gaitasunetan eta trebetasunetan gaituz | Lotutako helburu estrategikoak | FO2.OE2. |
| | | | FO1.OE3. FO1.OE4. |
| Deskribapena | <p>Jarduketa hau garatzeak laneratzeko zailtasun handiena duten pertsonen lanpostu bat eskuratzeko behar diren gaitasun eta trebetasun sozialak eta pertsonalak ematea dakar. Horretarako, jarduketa bi jarduera motatan egituratzea proposatu da:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Zeharkako tresnetako heziketa (DBHko titulua eskuratzeko, enplegua bilatzeko IKTak, CVren diseinua eta abar) • Gaitasun eta trebetasun sozialak eta pertsonalak indartzeko tailerrak (adimen emozionala, motibazioa, sormena, talde-lana eta abar) | | |
| Jarduerak | | | |
| A7.1 | Arreta jasoko duten kolektiboak lehenestea | | |
| A7.2 | Kolektibo zaurgarrienei laguntza eta orientabidea ematea | | |
| A7.3 | Zeharkako tresnetako heziketa ikastaroak abiaraztea | | |
| A7.4 | Gaitasun eta trebetasun sozialak eta pertsonalak indartzeko tailerrak eta jardunaldiak planifikatzea | | |

II. eranskina. Enplegu Plana 2013-2015erako lehenetsi ez diren jarduketak

A8 jarduketa. Lankidetzaren eta barneko ekintzailtzaren

| | | | |
|---|--|---------------------------------------|----------------------|
| Titulua | Lankidetzaren eta barneko ekintzailtzaren | | |
| Helburua | Enpresen lehiakortasuna hobetzea, barneko ekintzailtzaren bidez eta enpresen artean lankidetzaren proiektuak bultzatuz | Lotutako helburu estrategikoak | FO1.OE3. FO2.OE5. |
| Deskribapena | | | |
| <p>Proiektu honek enpresen artean, alde batetik, eta enpresen eta Udalaren artean, beste aldetik, dagoen lotura eta lankidetzaren beharri erantzun nahi dio. Horretarako, sektoreko taldeak edo enpresa lankidetzako foroak sortzea proposatu da, lehiakortasun maila handiagoa lortzeko asmoz esperientziak eta jakintzak partekatzea errazten dutenak. Jarduketa honen bidez, espero da, enpresen arteko lankidetzari esker, banaka eskuratu ezin diren finantzaketa eta/edo proiektuak eskuratzeko eta enpresa eta enplegu aukera berriak sortzeko aukera egotea. Bereziki nabarmendu behar da ETE oso txikiak mugiarazi beharra, mota horretako ekimenetan parte har dezaten.</p> <p>Adibide gisa, eta krisiak bereziki eraikuntzaren sektorea zigortzen jarraituko duela kontuan hartuta, eraikuntza iraunkorraren, eraginkortasun energetikoaren, zaharberrikuntzaren eta hirigintza iraunkorraren eta abarren arloetan etorkizuneko lehiakortasun ildoak garatzeko proiektu pilotua egitea proposatu da.</p> | | | |
| Jarduerak | | | |
| A8.1 | Foroak edo sektoreko taldeak zehaztea | | |
| A8.2 | Parte hartu nahi duten enpresak (ETE oso txikiak) zehaztea | | |
| A8.3 | Bileren egitaraua prestatzea | | |
| A8.4 | Lankidetzaren proiektuak eta finantzaketa programak zehaztea | | |
| A8.5 | Lankidetzaren proiektuak bultzatzea | | |

II. eranskina. Enplegu Plana 2013-2015erako lehenetsi ez diren jarduketak

A9 jarduketa. Lanbideko bulegoa ezartzea

| | | | |
|---------------------|---|---------------------------------------|----------------------|
| Titulua | Lanbideko bulegoa ezartzea | | |
| Helburua | Arrigorriagako bulegoa bultzatzea, teknikaria eta langabeentzako enpleguari eta heziketari buruzko arreta osoa dituen Lanbideko ordezkari-tza bihurrazita | Lotutako helburu estrategikoak | FO1.OE1. FO1.OE3. |
| | | | |
| Deskribapena | Jarduketa honek Arrigorriagan Lanbideko bulego bat ezartzeko eskatzea eta negoziatzea dakar. Eusko Jaurlaritzak Lanbideko bulegoa ezartzeari behin eta berriz uko egin dionez, beharrezkotzat jo da bulegoa abiarazteko ahaleginak gehitzea. Beharrian hori justifikatu da, langabeek eta bereziki luzaroko langabeek lanpostua ahalik eta lasterren eskuratu dezaten. Halaber, uste da beste udalerrri batera (Basauri, hain zuzen) joan behar izatea eta prestazio sozialen estaldura kolektibo zaurgarrienek lana bilatzeko eta beren burua birziklatzeko duten motibazioerik eza areagotzen duten faktoreak direla. | | |
| Jarduerak | | | |
| A9.1 | Udalak GV-EJren eskura jartzen dituen gaitasunak eta baliabideak (lokalak, aukera ekonomikoak, presio soziala eta abar) zehaztea. | | |
| A9.2 | Beharrian justifikatzea | | |
| A9.3 | Proposamena prestatzea | | |
| A9.4 | Proposamena helaraztea, eta GV-EJrekin negoziatzea | | |
| A9.5 | Udalak eta GV-EJk bulegoa abiarazteko konpromisoa hartzea | | |

II. eranskina. Enplegu Plana 2013-2015erako lehenetsi ez diren jarduketak

A10 jarduketa. Tokiko/Eskualdeko Garapenerako Agentzia sortzea

| | | | |
|---------------------|---|--------------------------------------|--|
| Titulua | Tokiko/Eskualdeko Garapenerako Agentzia sortzea | | |
| Helburua | | Lotutako helburu estrategikoa | FO1.OE1. FO2.OE2. FO1.OE3. FO2.OE5. |
| | Udalerriaren tokiko garapena sustatzea, agentzia baten bidez. | | |
| Deskribapena | <p>Tokiko Garapenerako Agentzia sortzea hausnartu da, udalerriko garapen ekonomikoari eraginez enplegua sortzeko eta ekonomia sustatzeko jarduketak gauzatzen dituen. Funtsezkotzat jo da agentzia horrek enpresekin eta enpresen artean lankidetzak loturak erraztea, haien beharrezko buruzko informazioa ateratzeko eta ehun ekonomikoa hobeto ezagutzeko, udalerriko dinamismo ekonomikoa bultzatzen duten jarduerak abiarazteko asmoz. Gainera, uste da lan merkatuaren beharrezko jardun behar duela. Hona hemen haren eginkizunen artean nabarmenenak direnak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Enpresetarako aholkularitza • Ekintzaileentzako aholkularitza • Lan arloko aholkularitza eta orientabidea • Enplegu eskatzaileen eta enpresen eskura dauden laguntzei eta baliabideei buruzko informazioa • Laneratzeko estrategiak prestatzea • Komunikazio eta sentsibilizazio kanpainak • Langabeentzako, langileentzako eta enpresetarako heziketa • Ekonomia sustatzeko eta leheneratzeko estrategiak • Udalerriko elkartegintza (foroak, sektoreko taldeak eta abar) dinamizatzea <p>Horrez gain, Agentziak enpresek, Udalak eta herritarrek toki, eskualde, nazio eta Europa mailako garapenerako ekimenetan eta programetan parte hartzea sustatzea proposatu da.</p> | | |
| Jarduerak | | | |
| A10.1 | Egitura eta gauzatu beharreko eginkizunak diseinatzea | | |
| A10.2 | Lan-merkatua eta ehun ekonomikoa aztertzea, eta horiek dinamizatzea | | |
| A10.3 | Garatu beharreko jarduerak programatu eta gauzatzea | | |
| A10.4 | Tokiko garapenerako programetan eta ekimenetan parte hartzea | | |

II. eranskina. Enplegu Plana 2013-2015erako lehenetsi ez diren jarduketak

A11 jarduketa. Lan orientabideko zerbitzua eta lan-poltsaren kudeaketa indartzea

| | | | |
|---------------------|---|---------------------------------------|----------|
| Titulua | Lan orientabideko zerbitzua eta lan-poltsaren kudeaketa indartzea | | |
| Helburua | Lan arloko aholkularitza eta orientabide zerbitzuak eta Udalaren lan-poltsaren kudeaketa eskaintzea, Udalak jada duen zerbitzua indartuta. | Lotutako helburu estrategikoak | FO1.OE1. |
| | | | FO2.OE2. |
| Deskribapena | <p>Jarduketak lan orientabideko egungo zerbitzua eta lan-poltsaren kudeaketa indartzea dakar, jarduketa eremu berriak barne hartuta:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Enplegu eskatzaileen profiei buruzko informazio zehatza eta enpresen beharizanei buruzko informazioa biltzea, alde horretatik jarduketak abiarazteko • Sentsibilizazio jarduketak, zenbait lanbide kolektiboren (etxeko lanak eta umeak zaintzen dituzten langileak, besteak beste) baldintzak hobetzeko • Bitartekotza lana egitea, negozio bat abiarazi nahi duten pertsonei laguntzeko, eta enplegu, heziketa, ekintzailatza eta berrikuntzaren arloetako jarduera zikloak antolatzea <p>Hala eta guztiz ere, jarduketa horiek gauzatzeko egungo zerbitzuaren giza baliabideak eta baliabide ekonomikoak gehitu behar dira. Funtsezkotzat jo da TGA bat laneratzea, ekintza horiek dinamizatzeko. Hori laneratzeko bideak (diru-laguntza, negoziazioa eta abar) aztertu beharko dira.</p> | | |
| Jarduerak | | | |
| A11.1 | TGA bat laneratzeko kontratazioa edo diru-laguntza | | |
| A11.2 | Arreta jasoko duten kolektibo zaurgarrienak lehenestea | | |
| A11.3 | Enpresei udal zerbitzu horren eta haren aukeren berri ematea (bisitak) | | |
| A11.4 | Heziketa jardueren eta ikastaroen programazioa | | |
| A11.5 | Lan-poltsaren komunikazio eta sentsibilizazio ildoak prestatzea | | |

II. eranskina. Enplegu Plana 2013-2015erako lehenetsi ez diren jarduketak

A12 jarduketa. Enpresa azpiegituren eta guneen plana

| | | | |
|---------------------|---|---------------------------------------|----------------------|
| Titulua | Enpresa azpiegituren eta guneen plana | | |
| Helburua | | Lotutako helburu estrategikoak | FO2.OE2. FO1.OE3. |
| | Enpresa proiektu berriak sortzen laguntzea, guneak egokituz eta industrialdeak eta pabilioiak zaharberrituz | | |
| Deskribapena | <p>Jarduketa honen bidez toki hutsak (tokiak, udal lokalak eta abar) egokitu nahi dira, enpresa proiektu berriak instalatzen laguntzeko. Udalak lokal hutsak ditu, ideiak sortzeko edo negozioak abiarazteko erabil daitezkeenak; halaber, udalerriko industrialde eta pabilioietako asko hutsik, narriatuta eta/edo zaharkituta daude. Jarduketa honek aurretik dauden azpiegituren egoera eta eskaintza zein diren jakin nahi du, baita langabeek eta enpresek enpresa jarduera berri bat abiarazteko duten benetako beharrezana ere. Beharrezan hori zehazteak azpiegitura horiek eskuratzen laguntzeko jarduketak abiaraztea ahalbidetuko du.</p> <p>Industrialdeak kudeaketa pribatukoak direnez, beharrezkotzat jo da horien jabeekin negoziatzea gune horiek berreskuratzeko aukera. Alde horretatik, zenbait erakunderekin (SPRI, Azpiegiturak eta abar) zuzenean koordinatuta Azpiegituren Plana prestatzea proposatu da. Udalak bitarteko jardungo du horretan, eta kredituak eskatzeko laguntza bilatu beharko du. Planak enpresa mintegia sortzeko aukera hartu beharko du kontuan, bertan langabeek sustatutako negozio berriak kokatuko direla. Era berean, enpresa jarduera eskuratzen laguntzen duten neurri batzuk prestatu beharko dira, adibidez, administrazio kostuak eta tasak murriztea, lokalak alokatzeko erraztasunak sortzea, ekintzaileei laguntzea edo heziketa eta enplegu ikastaroak abiaraztea, langabeek beraiek azpiegiturak zaharberri ditzaten.</p> | | |
| Jarduerak | | | |
| A12.1 | Udalerriko lokal eta toki hutsen kopurua zehaztea | | |
| A12.2 | Langabeei eta enpresei behar den gune motari buruzko inkesta egitea, beharrezana zehazteko | | |
| A12.3 | Industrialdeen jabeekin negoziatzea | | |
| A12.4 | Enpresa azpiegituren eta guneen plana prestatzea | | |
| A12.5 | Kredituak eskatzeko bitartekotza eta laguntza | | |
| A12.6 | Jarduera eskuratzen laguntzeko neurriak diseinatzea | | |

II. eranskina. Enplegu Plana 2013-2015erako lehenetsi ez diren jarduketak

A13 jarduketa. Komunikazio eta sentsibilizazio estrategia

| | | | |
|---------------------|---|---------------------------------------|----------|
| Titulua | Komunikazio eta sentsibilizazio estrategia | | |
| Helburua | Herritarren, enpresen eta Udalaren arteko komunikazio bide eraginkorra sortzea, erakunde publikoen eta pribatuen artean lankidetzak harremanak sustatzen dituen, haien beharrezko erantzuteko eta, horrela, Udalak eta herritarrek neurri handiagoan esku hartzea lortzeko, tokiko garapenerako helburuak lortzeko orduan. | Lotutako helburu estrategikoak | FO1.OE1. |
| | | | FO2.OE2. |
| | | | FO1.OE3. |
| | | | FO1.OE4. |
| | | | FO2.OE5. |
| Deskribapena | <p>Jarduketan gardentasunak konfiantza sortzen du. Horretarako, funtsezkoa da informazioa hedatzea eta herritarrei eragiten dieten eremu guztietan (aurrekontuak, kultur eskaintza eta abar) sentsibilizazio kanpainak egitea. Horrek garatu beharreko jarduerak, horien aldizkakotasuna eta informazioa hedatzeko komunikabideen hautaketa biltzen dituen komunikazio eta sentsibilizazio estrategia prestatzea dakar. Nabarmendu beharreko beste jarduketa batzuen artean, Udalaren webguneari dinamismo handiagoa eta eduki gehiago ematea eta herritarrei eta enpresa-ehunari eragiten dieten gaietako jardunaldi irekiak eta sentsibilizazio kanpainak egitea proposatu da.</p> <p>Estrategia hori garatzeko, arreta berezia jarri behar da Udalaren eta enpresen artean lankidetzak harremanak sustatzeko, enpresa-ehunaren beharrezko erantzuteko eta eskaerei buruzko jakintza handiagoa izanda, baterako jarduketak abiarazteko asmoz. Alde horretatik, komunikazio arina izateko, enpresak bisitatzea eta horientzako kontu interesgarri buruzko aldizkako informazioa ematea proposatu da.</p> | | |
| Jarduerak | | | |
| A13.1 | Komunikazio eta sentsibilizazio estrategia diseinatzea | | |
| A13.2 | Komunikabideak hautatzea | | |
| A13.3 | Estrategia gauzatzea | | |
| A13.4 | Enpresetarako bisitak | | |
| A13.5 | Estrategian ezarritako komunikabideen bidez hedatu beharreko informazioa etengabe eguneratzea | | |

II. eranskina. Enplegu Plana 2013-2015erako lehenetsi ez diren jarduketak

A14 jarduketa. Jardunbide egokiak zehaztea

| | | | |
|---------------------|---|---------------------------------------|----------|
| Titulua | Jardunbide egokiak zehaztea | | |
| Helburua | Jardunbide egokiak zehaztuz lehenetsitako 5 helburuak lortzeko neurriak ezartzea | Lotutako helburu estrategikoak | FO1.OE1. |
| | | | FO2.OE2. |
| | | | FO1.OE3. |
| | | | FO1.OE4. |
| | | | FO2.OE5. |
| Deskribapena | Amaitzeko, interesgarritzat jo da, udalerriko garapen sozioekonomikoa bilatzen duten jarduketak ezartzeko orduan, Bizkaian (edo horretatik kanpo) egon diren kasu arrakastatsuak zehaztea. Horretarako, erabakigarria da garapen ekonomikoko planak abiarazi ondoren hobekuntzak izan dituzten Bizkaiko udalerriekin eta Garapenerako Agentziekin, EUDELekin eta Bizkaiko Aldundiarekin harremanetan jartzea. | | |
| Jarduerak | | | |
| A14.1 | Jardunbide egokiak zehaztea | | |
| A14.2 | Harremanetarako udalak eta erakundeak hautatzea | | |
| A14.3 | Bilerak egitea, kasu onenak ikasteko | | |
| A14.4 | Udalerrian jarduketak abiaraztea bideragarria den aztertzea | | |

